

# Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 18a / 513. zenbakia

## ANTZINA, BETIKO

Aranzadi Zientzia Elkarateak  
eta Bergarako Udalak, lankidetzan,  
herriko megalitoak garbitu  
eta seinaleztatu egingo dituzte

Irudian aurkitu  
berri duten  
Arribillata  
dolmena.

GAZTETXEA: MUSIKA TALDEAK CD-A GERTATZEN/12 • SAN JOXEPE: KULTURA JAIALDIA FRONTOIAN/14

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

# GIDA 2003 abian!

Aurten ere, telefono partikularrak aurkitu ahal izango dituzu.

Lagunak, familia, ezagunak...  
Guztien telefono zenbakiak!

Telefono berria jarri baduzu  
edo aldatu baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

Gida Komertziala,  
zure eskuetan!

Informazio gehiago:

**943 71 23 91**




## ATREBENTZIAEZPADA/ Ze pentsatzen jatzu garraio publikua bultzatzeko hiri sarreran peajia ipintzia?



**FELIX AGIRRE**  
70 urte



**BEGO ARZELUS**  
42 urte



**BLAS UGALDE**  
79 urte



**MAIDER ALTZELAI**  
27 urte



**MARIA PILAR GARCÍA**  
35 urte



**AITOR ELKOROBREZIBAR**  
36 urte

Ironixa pixka batekin erantzungo dotsat horri: Bergaran be ipiñi daigun peajia, eurak etortzen dienian be pagau deizen. Ez jat ondo pentsatzen Diputaziñuaren asmo hori.

Garraio publikua bultzatzia ondo pentsatzen jat. Donostiara autobusian jutena naiz, kotxia hemen lagata. Peajiana be ondo dago, jentia ez leukelako kotxia hainbeste erabiliko.

Peajiana ez jat gaizki pentsatzen, betibe, pagautako diru horrekin aparkatzeko tokia egongo balitz. Baiña zenbat pagau biharko litzakien be jakin bihar, eta diru hori zeinendako dan.

Garraio publikua bultzatzia ondo pentsatzen jat, baiña beste modu batzuk be badare uste dot. Peajiana ez jat pentsatzen modurik zuzenena; peaje nahikua dago bestela be.

Dirua etartzeko burutaziaño bat dala uste dot, eta ez gure onerako gauza bat. Garraio publikua bultzatzia oso ondo pentsatzen jat, baiña badare beste modu batzuk.

Nahikua zerga ordaintzen dogu, baita herriko tasak be kotxia eukitziarren. Gaiñera, hiriburura sartzeko pagau biharra ez jat ondo pentsatzen, gehixegizkua da.

### TXALOAK ETATXISTUAK



**TXISTUAK TXAKURRENDAKO TXIZATOKIA** Irakurle batek deitu du, eta esan digu Iparragirreko pasealekua eta lorategiak txakurrendako txizatoki bihurtu direla. Haren esanetan, gauez jende ugari eramaten du txakurra Iparragirrera, eginbeharrekoak egitera. Irakurleari ez zaio batere egokia iruditzen, egunean barrena umeak jolasten ibiltzen direlako hantxe. /MONIKA BELASTEGI

### ETABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK /5

KIROLAK /10

KULTURA /12

#### Bergarako megalitoak

Aranzadi Zientzia Elkarreak, herriko megalitoak seinalatzeko lanetan, dolmen bat aurkitu du.

#### Senior nesken debuta

Bergara KEko senior nesken eskubalo taldeak Elgoibarren aurka hasiko du liga zapatuan.

#### Le Badinageren emanaldia

Le Badinage musika taldeak Haendelen gaineko emanaldia egingo du bihar, Mariaren Lagundian.

### ASTEKODATUA

# 7

#### BERGARAK EGINDAKO GOL KOPURUA

Bergarako preferente mailako futbol taldeak zazpi gol sartu zizkion zapatuan Gure Txokoa taldeari, Agorrosinen (7-0). 1980. urtea ezker Bergarak ez zuen halako emaitzarik lortzen.

### BESTEKEESANA


**“Izendapen honek ez du esan nahi erretiratzeko aukera aztertzen ari naizenik. Oraindik pilotari moduan urte batzuk geratzen zaizkidala uste dut. Espero dut enpresa barruan bi lanak egiteko denbora izatea.**

**JOKIN ETXANIZ / Pilotaria eta Aspeko zuzendari teknikoa 'El Diario Vasco' / 02-10-11**

**“Oraindik kontratenero ahotsa ez da oso entzuna hemen, eta musika barrokoa ere ez dago oso errotuta. Arraroak gara erreperitorio hori lantzen dugulako. Baina jendea gero eta gutxiago harritzen da.**

**DAVID AZURZA / Kontratenorra 'El Diario Vasco' / 02-10-11**

### BERAIEK DIÑOE/ Iñigo Alberdi



#### Huts-Hitz

**T**xuriz dagoen paperak errespetua ematen duela? Bai, horixe. Hutsuneak ikaritzen gaitu, beti, naiz eta Oteizak edo Chillidak “huts” kontzeptu horretatik abiatu beren sorkuntza artistikorekin bidean. Beraz, jakin ezazue lerrotxo hauek (hiru hilean behin idatziko ditudanak) ilusioz eta errespetuz idazten ditudala. Irakurtzea gustuko dut, eta irakurri dudana azkeneko liburua bidai liburu bat izan da. Eta zer deskribatzen du, nora egindako bidaia? Ba uste dut erantzuna ez dela oso exotikoa, Euskal Herrian egindako bidaia baten gorabeherak jasotzen baititu. XIX. eta XX. mendeen tartean idatziko liburu bat da, zehatzago, artikulu batzuen biltza. Egilea Pierre Loti da eta garai hartako bidaiari erromantikoaren estiloan bere inpresioak eta jasotzen ditu... Gure herria garai bateko turista batek nola ikusi zuen erakusten digu egileak.

Liburu horren objetibotasun maila (urria) egunero irakurtzen, entzuten eta ikusten ditugun informatibo eta egunkariena baino askoz handiagoa da. Txunditzekoa da, baina hala da. Benetan errealitate birtual bat aurkezten da gure herriari buruz hitz egiten denean. Bi arrazoi izan daitezke horren oinarri; liluraturik dagoen maitamunduen maitasun mugaezina (Loti) edo gorrotoak itsutzen duenaren fede txarra. Sinistu beharrean gaude, bizitzan eta errespetuan aniztasunean”

Sinistu, guregan sinistu, gure Herriaren etorkizunean sinistu. Aniztasuna, errespetua eta askatasuna bilatu behar ditugu. Errespetu-tik aniztasuna dator, eta aniztasuna askatasunaren eta biziaren ezaugarri bat besterik ez da. Hitz egitea behar dugu. Herriak hitza behar du.

Gure artean dagoen zoritxarreko “huts” hori hitzez bete dezagula.

# Berrigara

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33  
20570 BERGARA  
Tel.: 943 76 03 97  
Faxa: 943 76 29 77  
Posta-e: berrigara@goiena.com

**ZUZENDARIA**  
Edu Mendibil  
**ERREDAKZIOA**  
Monika Belastegi,  
Aintzane Irizar  
**MAKETAZIOA**  
Iñaki Iturbe

**PUBLIZITATEA**  
Mireia Larrañaga  
**KOLABORATZAILEAK**  
Luis Mari Agirre  
Maitane Arizabaleta  
Juan Martin Elexpuru  
Miguel Angel  
Elkoroberezibar

**LEGE-GORDAILUA**  
SS-50/91  
**ISSN**  
1130-6599  
**TIRADA**  
5.900 ale

**Goiena**  
Komunikazio Zerbitzuak

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaureritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Bergarako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Elgetako  
Udala



**ONDAREA/** Joan den martitzenean aurkitu zuten dolmenari Arribirilleta izena jarri diote, estalkiaren ertz biribilduengatik

# Azaroan seinaleztatu eta garbituko dituzte herriko hamahiru megalitoak

MONIKA BELASTEGI

Udaleko arduradunekin eta megalitoak dauden lurren jabeekin batzarra izan ondoren, azaroan hasiko dira herriko megalitoak garbitzen eta seinaleztatzen. Guztira, hamahiru dira: hamabi lehena-gotik ezagunak eta bat joan den astean aurkitu zuten.

Udal arduradunekin eta megalitoak dauden lurren nagusiekin joan den egunean egin zuten batzarra Aranzadi Zientzia Elkarteko ordezkariak. Batzarraren helburua zen lur-jabeen baimena jasotzea euren lurretan dauden megalitoak garbitu eta seinaleztatzeko. Dagoeneko guztia adostuta dago eta Aranzadi Zientzia Elkarteko Luis del Barrioren esanetan, "azaroaren lehen edo bigarren astean hasiko gara lanean".

Lan horiek Eusko Jaurlaritzak bultzatutako proiektuaren barruan daude. Duela bi urte, Gipuzkoako megalito guztiak ondare kultural izendatu zituen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, monumentu kategoriarekin. Horrelako izendapenak monumentuaren zaintza areagotu egiten du, eta, horren ondorioz, megalito guztiak garbitu eta seinaleztatzeko proiektua jarri zuen abian 2000. urtean.

Proiektuaz Aranzadi Zientzia Elkarteko Historiagere Saia arduratu da, betiere, udalekin lankidetzan. Bergararen kasuan, Udaleko langileak izango dira megalitoak garbitu eta seinaleak jartzeaz arduratuko direnak.

## BERGARAN HAMAHIRU MEGALITO

Bergara da Aralarren eta Aiaren ondotik megalito gehien dituen herria: hamahiru, hain zuzen; bi estazio megalitikoetan banatuta: Elosua-Plazentzia eta Udala-Intxorta. Megalito horietako bost dolmenak dira eta zortzi tumuluak.

Luis del Barrioren esanetan, Bergaran megalito kopuru hori egoteko arrazoia nagusia da "urte-tan ondo kontserbatu direla". Kontserbazio lan horretan megalitoak seinaleztatzea garrantzitsua dela aipatu du, "asko mendiko lanengatik desagertu egin direlako".

## SEINALEZTATU ETA GARBITU

Laurogeita bost kilo inguruko harrizko seinalea jarriko dute megalito bakoitzaren ondoan. Seinaleak plaka bat ere izango du, eta bertan hainbat datu egongo dira: toponimoa, zein monumentu mota den, haren funtzionalitatea eta kalifikazioa.

Seinaleztatzeaz gain, proiektuaren barruan megalitoetatik belarrak kentzea ere sartzen da, eta Luis del Barrio Aranzadi Zien-



ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA

Joan den martitzenean, irudiko dolmena aurkitu zuten Aranzadi Zientzia Elkarteko kideek. Haien esanetan, berezko itxurari eusten dio eta 'bortxatu' barik dago.

tzia Elkarteko kideak aurreratu duenez, megalitoak urtean birritan garbitzeko konpromisoa hartu du Udalak.

## HIRU BABES MAILA

Eusko Jaurlaritzak monumentu izendatu zituenetik, megalitoen gaineko babesareagotu egin da.

Monumentuaren zaintzarako hiru babes eremu zehaztu dituzte: lehenengoa megalitoa bera da; hau da, megalitoak hartzen duen

azalera ezin izango da inongo aktuaziorik egin, arkeologikoa ez bada. Bigarren babes eremuek megalitoa inguratzen du: ezin izango da bost metroko erradioran inongo aktuaziorik egin, arkeologikoa ez bada. Gainera, bi kasuetan lan arkeologikoa egiteko ere Foru Aldundiko Kultura Sailaren baimena beharko da.

Hirugarren babes eremuek 50-100 metro inguratzen du megalitoa. Kasu horretan, lan arkeologikoez gain, lurra ukitzean duten beste lan batzuk ere egin ahal izango dira, baina, betiere, Foru Aldundiaren baimenarekin.

## DOLMEN BERRIA

Luis del Barrio Aranzadi Zientzia Elkarteko kidearen esanetan, hilaren 8an aurkitu zuten dolmena. Oraindik ere datu gutxi dituzte haren gainean, azterketarik egin ez dutelako. Hala eta guztiz ere, oso dolmen esanguratsua da, "estalkia mantendu egiten duelako, posizio orijinalen, gainera".

Dolmenari Arribirilleta izena eman diote, del Barrioren esanetan ingurukoek horrelaxe deitzen diotelako. Izan ere, higaduragatik ertzak biribilduta ditu.

Dolmena Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago, eta estazioa katalogatutako kultura ondare gisa kalifikatuta dagoenez, dolmenak ere kalifikazio hori jasoko du. Dena dela, seinaleztatze lanekin batera dolmenaren gutxieneko azterketa egingo dute Aranzadiok, dagokion fitxa bete eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzeko katalogoan sar dadin.

## Izena duten zortzi tumulu eta bost dolmen

### ARRIBIRILLETA, 2002an aurkitua

- Dolmena. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Aranzadi Zientzia Elkarteak aurkitu zuen, 2002ko urriaren 8an

### AGERREBURU

- Dolmena. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 11,50 m eta altuera 0,75 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1920an
- 1921ean induskatua
- Kalkolitiko-Brontze garaikoa

### AITZPURUKO ZABALA

- Dolmena. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 13 m eta altuera 1,15 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1921ean
- 1921ean induskatua
- Neolitik-Brontze garaikoa

### GOINZARI ZELAIA

- Tumulu. Udala-Intxorta estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 7 m eta altuera 1 m
- F. Alcalá, L. del Barriok eta Tx. Ugaldek 1920an aurkitua
- Induskatu gabea
- Neolitik-Brontze garaikoa

### IRUKURUTZETA

- Dolmena. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 19 m eta altuera 1,80 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1920an
- 1921ean induskatua
- Neolitik-Brontze garaikoa

### IRUTONTORRETA III

- Tumulu. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 11 m eta altuera 0,30 m
- F. Alcalá, L. del Barriok eta Tx. Ugaldek aurkitu zuten, 1980an
- Induskatu gabea
- Neolitik-Brontze garaikoa

### KEIXETAKO EGIYA IPAR.

- Tumulu. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 9 m eta altuera 0,80 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1920an
- 1921ean induskatua
- Neolitik-Brontze garaikoa

### KEIXETAKO EGIYA HEG.

- Dolmena. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 17 m eta altuera 1,80 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1920an
- 1921ean induskatua
- Kalkolitiko garaikoa

### KURTZEBAKAR

- Tumulu. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 10 m eta altuera 0,80 m
- J.M. Barandiaranek aurkitu zuen, 1920an
- 1921ean induskatua
- Neolitik-Brontze garaikoa

### LASARTEGAIN

- Tumulu. Udala-Intxorta estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 14,50 m eta altuera 2 m
- F. Alcalá, L. del Barriok eta Tx. Ugaldek aurkitu zuten, 1980an
- Induskatu gabea
- Neolitik-Brontze garaikoa

### MAURKETA

- Tumulu. Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 16,50 m eta altuera 1,60 m
- J.M. Barandiaranek 1920an aurkitua
- 1921ean induskatua
- Neolitik-Brontze garaikoa

### TRANPALUARRI

- Tumulu. Udala-Intxorta estazio megalitikoan dago
- Tumuluaren diametroa 29 m eta altuera 2,20 m
- F. Alcalá, L. del Barriok eta Tx. Ugaldek aurkitu zuten, 1980an.
- Induskatu gabea
- Neolitik-Brontze garaikoa

### IRUTONTORRETA MEND.

- Tumulu. Udala-Intxorta estazio megalitikoan dago
- Neurtzeko dago
- 1950eko hamarkadan aurkitu zuten
- Induskatu gabea
- Zehazteko dago



12-16 urte bitarteko neska-mutikoez aisialdian gustuko dituzten gaiak landu eta euskara finkatzeko aukera izango dute.

EUSKARA/ Adin tarte horretako aisialdian dagoen hutsunea bete nahi du Jardunek

## Irratia eta aisialdi lantegiak 12-16 urteko gazteendako

MONIKA BELASTEGI

Hamabi eta hamasei urte bitarteko gazteen aisialdian dagoen hutsunea betetzeko asmoz, egitasmoa antolatu du Jardun elkarteak. Egitasmoak bi ardatz ditu: irrati emaldiak eta aisialdi lantegiak. Aisialdia betetzearekin batera euskara bultzatuko dute.

Egitasmo horrek hiru helburu ditu, Jardun elkarteko kideen esanetan: batetik, gazteen arteko harremanak lantzea eta talde tinkoa lortzea; bestetik, euskaraz egiteko ohitura duten lagunartean ohitura hori finkatzea kul-

tura eta gizarte balioa emanez; eta azkenik, gaztelan egiteko ohitura duten lagun artean euskara sendotu eta finkatzea.

Hiru helburuok bideratzeko, bi ekimen jarriko ditu abian elkarteak: irrati-gintza eta aisialdi lantegiak. Bestalde, baterako zein besterako bi talde egingo dituzte, adinaren arabera: talde bat 12-14 urte bitarteko gazteekin eta bestea, 14-16 urte artekoekin.

### IRRATIGINTZA LANDU

Irratigintzan bi taldeetako bakoitzak hilean behin irratsaioa egingo du Txapa Irratian, eta emaldia prestatzeko hainbat arlo landuko ditu bi begiraleren lagun-

tzarekin: informatiboak, elkarriketak, musika saioak...

### AISIALDI ESKAINTZA

Lantegiei dagokienez, askotariko gaiak landuko dituzte: sexua, musika eta film laburrak, esaterako. Dena dela, gaiak bi taldeetako bakoitzaren adinaren eta zaletasunaren arabera zehaztuko dituzte.

Irratigintza lantegiak ikasurte amaiera arteko iraupena izango du. Gainerakoak aldi baterakoak izango dira. Baina biak tartekatuko egingo dira. Egitasmo berriaren izena emateko epea urriaren 25era arte dago zabalik Jardunen, 12 euroren truke.



## Matxinatuen Korrikaldiari agur

Matxinatuen Korrikaldia domekan heldu zen herrira. Antzuolatik zetorrenez, San Antoniotik sartu zen, 12:30 aldera, eta hantxe hartu zuten lekukoa Bergarako ordezkariak, argazkian ikus daitekeen moduan.

Herrian barrena ibilaldia egin zuen Korrikaldiak, eta bazkaria ere bertan, Artatse elkartearen, hain zuzen. 16:30 aldera Arrasaterako bidea hartu zuen Korrikaldiak. Han Debagoieneko ekitaldi nagusia izan zen, eta gero, Aretxabaletako bidea hartu zuen.

## Bergara-Maltzaga autobide zatia apirilean zabalduko dute

MONIKA BELASTEGI

Garraio eta Errepideetako diputatu Anton Jaime A-1 autobideko lanak ikusten izan zen egubakoitzean. Bergara eta Maltzaga arteko zatia da aurreratua. Autobide osoa 2006rako bukatuko ei dute.

Anton Jaimeren esanetan, A-1 autobideko lehen zatia, hau da, Maltzaga eta Bergara iparra artekoa, 2003ko apirilean inauguratzeko asmoa dute.


A-1ek Eibar eta Gasteiz lotuko ditu, eta Eibar eta Arrasate artekoa da hasita dagoen tartea. Horren baitan, Maltzaga eta Bergara artekoa da aurreratua.

Maltzaga eta Bergara arteko tartea hori 7,2 kilometro luze da.

Aipatutako kilometro horietatik Bergarari 4,8 kilometro dagozkie, eta lan nagusiak honakoak dira: Lezarriko tunel bikoitza (1,2 Km.), Gallastegiko tunel bikoitza (2,4 Km.) eta zubi-bide bat (125 metro).

Diputatuak adierazi zuenez, Maltzaga-Bergara iparra tartea apirilean inauguratu ondoren, 2003ko udazkenean Bergarako iparra eta Bergarako hegoa amaituko dute. 4,4 kilometro luze da eta lanik aipagarrienak hauek dira: Ipiñarriko zubi-bidea (640 m.), Uberako zubi-bide bikoitza (250 metro zubi-bide bakoitzak), San Martzialgo tunel bikoitza (1,5 Km.) eta Angiozarko tunel artifiziala (140 m.).

Autobide osoa 2006. urterako amaituta egongo ei da.



Goian, San Martzialgo tunelak. Behean, Angiozarko bidean egiten ari diren tunela.

## LABUR

### 2002ko ekonomia jardueren gaineko zergaren ordainagiriak ordaintzeko epea zabalik dago

Aurtengo ekonomia jardueren gaineko zerga ordaintzeko epea aurrera doa. Ordainketa egiteko borondatezko epea azaroaren 11n amaituko da, eta epe horren ondoren, errekararekin kobratuko da. Ordaintzeko era eta lekua hauxe da: alde batetik, ordainagiriaren ordainketa banketxeren batean helbideratuta duten zergadunen kasuan, banketxearen bidez bidali eta kobratuko zaie ekonomia jardueren gaineko zerga.

Bestetik, ordainagiriak helbideratu barik dituzten zergadunek datozen egunetan etxean jasoko dute ordainketa egiteko behar duten agiria. Agiri horrekin edozein banketxetatik edo Udal bulegoetatik pasa daitezke ordainketa egiteko. Agiri hori urriaren 31 baino lehen jasotzen ez bada, edo azalpenetarako, Kontu hartzaile-tzatik pasa daiteke.

### Bi titulazio berrirekin hasiko du gaur UNED zentroak 2002/2003 ikasturtea

Gaur, egubakoitza, ekingo dio UNEDek ikasturte berriari. Ohiko ikasketez gain, beste bi eskainiko ditu 2002/03 ikasturtean: Informatika Ingeniaria eta Turismoan Diplomaduna, hain justu ere.

Ikasketa berriekin batera, hainbat ikasketa plan berrira egingo dira ikasturte berriaren. Honako lau hauek, hain zuzen ere: Zuzenbidean Lizentziaduna, Industria Ingeniaria, Ingeniari Tekniko Informatika Gestioan eta Ingeniari Tekniko Informatika Sistematan.

Horrekin batera, iaz sortutako hizkuntza akademiak hiru hizkuntza eskainiko ditu aurtengo euskaraz gain: ingelesa, alemana eta frantsesa.



Aceraliako egoera salatzeke hainbat ebidentziaren berri eman zuen prentsurrekoan LABek.

ENPRESA/ Zuzendaritzak LAB bazterten duela eta ELA faboratzen duela azaldu dute

# LABek bazterketa sindikala salatu du Acelaria lantegian

MONIKA BELASTEGI

LABeko sail sindikalak Aceralia enpresan bazterketa sindikala gertatzen dela salatzekeoa zen gaur, egubakoitza, lantegiko bulegoen aurrean egintekoak ziren prentsurrekoan. LABek dio enpresako zuzendaritzak baztertu egiten dituela, eta ELA sindikatua, aldiz, faboratu.

LABeko ordezkariak gaur prentsurrekoan azaltzekoak ziren bezala, bazterketa sindikala 1989. urtean hasi zen, "Aristrainek kudeaketa hartu zuenetik. Esan daiteke ordutik hona LAB sindikatua zigortu eta baztertu egiten dutela Aceralian". Beste sindikatu batzuen kasuan, unean unean

ko bazterketarik ere izan dutela adierazi dute: "ELA sindikatua izan ezik: ELA beti saritu eta lagundu izan du zuzendaritzak". Salaketa egiteko arrazoia ez da, LABekoen esanetan, "hauteskunde atarian gaudela. Enpresa barruan askotan salatu dugu egoera hau; bai zuzendaritzari baita ELAri ere. Baina ez digute jaramonik egiten; entzungor egiten dute. Horren adibide da duela hamar bat egun izandako batzarrak. Han berriro azaldu genuen gure kezka, baina ez genuen erantzunik jaso. Horregatik, salaketa publikoa egitea erabaki dugu".

## SALAKETA EGITEKO EBIDENTZIAK

Salaketa egiteko hainbat ebidentzia dute LABeko kideek,

"nahiz eta froga materialik ez". Dena dela, "epe laburrean izango ditugu ebidentzia horietako batzuk agerian uzteko frogak".

LABekoen esanetan, besteak beste, nabaria da azkenaldian enpresan sartu diren langileek FP-II agiriaren beharrik ez dutela izan, baina "bai ELAko txartela ahoan". Mailaz igotzeko ere zuzendaritzak politika diskriminatzailea erabiltzen duela diote, "hortxe ere ELAko txartela ahoan behar delako". LABekiko atxikimendua adierazten duten langileak zigortu egiten dituztela ere azaldu dute, eta, horren ondorioz, eragozpenak sortzen dituela hauteskunde sindikaletan hautagai-zerrendak osatzeko, "hori guztia, ELAren onspenarekin".

# Nerabe eta gazteekin lan egiteko bi teknikari kontratatu ditu Udalak

AINZANE IRIZAR

INEMekin egindako hitzarmen baten bitartez, bi teknikari kontratatu ditu Udalak, nerabeen eta gazteen arloan lan egiteko. Orain bi aste hasi ziren lanean, eta proiektua garatzen ari dira orain.

Hamahiru eta hamazazpi urte bitarteko gazteen eta nerabeen errealitatea zein den jakin nahi du Bergarako Udalak. Gizarte Ongizate Sailak jarri du abian ekimen hori, Udalean adin tarte horretako gazteen gaineko politikarik ez dagoela-eta. Ekimen

hori aurrera eramateko, esan bezala, bi teknikari hasi berri dira lanean. Une honetan proiektua garatzen ari dira, baita dokumentazio lanetan ere.

## LAU HELBURU

Ekimena hasierako fasean dago oraindik, baina argi dituzte zeintzuk diren lan horretan euren helburuak, eta helburu horietan oinarrituko dute euren lana. Orokorrean, lau helburu nagusi finkatu dituzte.

Alde batetik, gazteen eta nerabeen sektorean hobekuntzak sartzeko udal antolakuntza: hau da, Udaleko departamentu guztiek

gazteen berri zabalagoa izan dezatela, eta gero eta gehiago kontuan har dezatela gazteen sektore hori. Finkatu duten beste helburu bat da nerabeen eta gazteen eskaerak jasotzea eta eskaera horiek aztertzea.

Bestetik, herri mailan dauden baliabideak gazteei hurbiltzea da hirugarren helburua.

Eta, azkenik, udal baliabideen eta gazteen eta nerabeen arteko zubi lana bideratu nahi dute ekimen horretako arduradunak.

Gazteen errealitatearen gaineko azterketa hori egiteko, sei hilabeteko lanaldia dute, hasiera baten, teknikariek.

# Inauguratuta Miguel Altunako Teknologia Aurreratuko Gela

MONIKA BELASTEGI

Eguenean inauguratu zuten Miguel Altuna Institutuan Teknologia Aurreratuko Gela. Teknologia berrietara egokitzeko beste urrats bat eman nahi izan du Miguel Altuna Institutuak ekimen horrekin.

Eguen goizean izan zen inaugurazio ekitaldia, eta, besteak beste, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerkuntza sailburu Angeles Iztueta eta Lanbide Heziketako sailburuorde Jorge Arevalo izan ziren, Miguel Altuna Institutuko ordezkariekin batera.

Teknologia Aurreratuko Gelak hamaika ordenagailu, kamera bat eta pantaila digitala ditu. Teknologia horrekin, Intraneten dagoen materiala erabiltzeko aukera izango dute ikasle eta irakasleek aldi berean: guztiek material bera kontsultatu ahal izango dute, baita irakasleak pantaila digitalaz baliatuz azalpenak eman ere.

Horrez gain, bideo-konferentzia bidez Lanbide Heziketako

beste ikastetxe batzuekin jarduteko aukera ere eskaintzen du gela berriak. Izan ere, horrela, informazioa eta esperientzia modu errazagoan trukatu ahal izango dute. Gainera, Miguel Altuna Institutuak bezala, EAEko beste bederatzi ikastetxetan ere horrelako gelak jarri dituzte.

Egueneko aurkezpenean, Miguel Altunako gela ez ezik, beste bederatzi ikastetxetako gelak ere inauguratu zituzten, aldi berean, bideo-konferentziatz baliatuta.

## TXIRBIL HARROTZE BIDEZKO MEKANIZATU IKASTAROA

Zabalik jarraitzen du Miguel Altuna Institutuan txirbil harrotze bidezko ikastaroan izena emateko epeak. Langabezia dauden gizon eta emakumeei zuzenduta dago, eta pertsona horiei lan esparruan sartzeko aukera eskaintzea du helburu.

Ikastaroan izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko, Miguel Altunako idazkaritzan, 943 76 24 91 edo 943 76 38 40 telefono zenbakietan.

# Sozialista Abertzaleek planto instituzionala egin dute

MONIKA BELASTEGI

Astean barrena planto instituzionala egin du Sozialista Abertzaleen udal taldeak. Euskal Herriak bizi duen egoera larria irudikatzen eta salatzen egin dute protestaldi hori.

"Euskal Herriak bizi duen egoera ez normalizatua irudikatzen eta salatzen" protestaldi instituzionala egin dute astean barrena Sozialista Abertzaleek.

Hori horrela, Udalean normalean parte hartzen duten batzordeetako, osoko bilkuretako... jarduna albo batera utzi eta bilgune horietan Euskal Herriak

bizi duen egoeraren gaineko eztabaida bultzatzen aritu dira. Era berean, eta helburu berarekin, EAJko eta EAKo zinegotziekin batzarrak egiteko asmoa dutela adierazi dute Sozialista Abertzaleek. Azken baten, ekimen horrekin guztiarekin "agerian utzi nahi dugu datozen hilabeteetan, betiere, gure borondatearen kontra, Udal honetan bizi daitekeen errealitatea".

Planto instituzionala behin-behineko ekimena dela ere argitu dute: "Astebetekoak izango da, eta datorren astetik aurrera burubelarri jarraituko dugu bergararren alde eta Euskal Herriaren eraikuntzan ahal dugun ekarpena egiten".



Sozialista Abertzaleen planto instituzionalak astebete iraun du.

ARTXIBOA




## ESKOLA ALDIZKARIA PRESTATZEN

**M**ariaren Lagundiko DBHko 3. mailako ikasleak bisitari izan genituen aurreko egubakoitzean BERRIGARAKO erredakzioan. Eburne Uriarteren ikasleak Prentsa lantegia egiten ari dira, eta herriko aldizkaria zelan egiten den ikustera etorri zitzaizkigun. Aurtengo ikasturtean eskola aldizkari bat egiteko asmoa daukate, eta gure lan egiteko modua azaldu genien: astero albiste izango diren gaiak aukeratzeko egiten dugun batzarretik hasi eta aldizkaria inprentara eramaten dugun arteko prozesua, hain zuzen. Hona etorri ziren ikasleak adi izan ziren azalpenak jasotzerako orduan, eta laster guri konpetentzia egiteko prest azaldu ziren. Ea, bada!



## PERRETXIKO GALANTA

**N**ikolas Arzelusek (ezkerrean) eta Migel Iturbek esku artean duten perretxikoa kuletoa (*Amanita caesarea*) duzue. Gorbeian aurkitu zuten, martitzen goizean, eta gurera etorri ziren harro-harro pieza eder hori erakustera. Argazkia atera eta denda batera joan ziren pisaterra: 585 gramo eman zuen. Haien esanetan, kuletoa perretxiko gozoenetakoa da, eta lagun artean dastatzeko asmoa zeukaten.



## JARDUNEN JOLASLEKU IBILTARIA, ABIAN DA!

**A**urreko ikasturtean moduan, aurten ere Jardun euskara-elkarteak gaztetxoendako jolasleku ibiltaria abian jarri du. Bereziki umeak eta haien zainzaileak batzen diren lekuetara eramango du Jardunek jolaslekua. Joan den egubakoitzean, Matxiategin izan ziren Jarduneko begiraleak, 6 eta 12 urte arteko gaztetxoendako jolasak antolatzen: sokasalto, zapi-jolasak, marrazketa edo ezkerreko argazkian ikus daitekeen makillaje koloretsua. Euskaraz jolasteko baliabide egokiak eskaintzea da Jardunen helburua, eta jolaslekuarekin, bereziki, umeen ahozketasuna landu nahi du. Datorren egubakoitzean, hilak 25, Espoloian izango dira, 17:00etan.



## POL-POL Taberna

943 76 07 78. Bergara

## Zuri Beltz margoak

Barnealde eta kanpoaldean  
erreforma

Pintura zerbitzu osoa

Moketak

943 76 14 60

607 447 494

943 76 59 59

Bergara

## Azarotik aurrera helbide berrian: Masterreka 13, behea

**ADI!**  
Azaroan,  
erlaxazio ikastaroa  
hasiko da.  
Informa zaitez!

  
**Samadhi  
Yoga**

YOGOTERAPIA ETA ERLAXAZIOA

Masterreka 13, behea  
Tel. 639 235 753 / 943 76 11 38



BERGARARRAK MUNDUAN

MIREIA ORGAZ

33 URTE / MEDIKUA / NIGRAN (PONTEVEDRA)

“Galziarrak jatorrak eta irekiak dira; ondo moldatzen naiz haiekin”

EDU MENDIBIL

**O**rain, urrian, bi urte izango dira Mireia Galziara bizi izatera joan zela. Aurretik ondo ezagutzen zuen Galizia, Salamancan Medikuntza ikasten ari zela behin baino gehiagotan oporretan joandakoa zelako; izan ere, ikasle garai-lagun minetako bat neska galziar bat zuen. Salamancan zortzi urte eman zituen eta orain Fremap istripuetarako mutualitatean ari da lanean: “Duela bi urte lanean hasi nintzen Vigon, udan, bi hilabetez; gero Arrasaten lanean hasi arren, argi neukan Galziara bueltatu nahi nuela. Oso gustura ari naiz, eta urtarrila ezker lan finkoa daukat”.

Mutil-lagunarekin bizi da, Baiona ondoan, Nigran-en, eta etxea erosi berri dute han: “Vigo nahiko zatarra da, Bilboren estilokoa, zirkulazio handiko hiri handia. Edozelan ere, Vigotik oso gertu hondartzak daude eta hemengo kostaldea oso ondo dago. Eguerdia Euskal Herrian baino zertxobait hobea dela esango nuke. Hori bai, txarra egiten duenean, akabo!”.

Galziarrei dagokienez, zera diosku: “Jatorrak eta irekiak dira, euskaldunak baino irekiagoak. Ondo moldatzen naiz haiekin. Hona bizi izatera etorri eta mutila ezagutu aurretik, oporretan lagun

baten etxean egoten nintze-  
nean, lagun mordoa egin  
nituen, eta haiekin irteten gara  
askotan. Hala ere, nahiko etxe-  
zulo gara: lagunartean afaldu  
eta etxean lasai egotea nahia-  
go izaten dugu. Portugalera ere  
askotan joaten gara, autoz  
ordu erdira besterik ez dago-


“Duela bi urte  
Arrasaten lanean  
jardun arren,  
Galziara itzuli  
nahi nuen”

eta. Udan lanean jardun dugu  
mutilak eta biok, senideak eta  
lagunak etortzeko garai apro-  
posa delako, eta oporretan ere  
Portugalen izan gara orain”.

Urtean hiruzpalau aldiz  
etortzen da Mireia Bergarara:  
“Kosta egiten da haraino joa-  
tea, bidaiak luzea da-eta. Hala  
ere, Gabon zaharrea Berga-  
rara joateko asmoa  
daukagu”.



MINGAINARITIRAKA



Nagore Agirre

AGIRRE HORTZ KLINIKAKUA

**Odontologia ikasketak egin zittuan Nagorek (27 urte), eta Alaitz ahizparekin hortz klinika zabaldu zeban iaz. Futbolzale amorratua, Real aurtan UEFArako sailkatuko dala uste dau.**

**Txikittan, ze izan nahi ziñuan?**  
Mediku.

**Dentistekin bilddurra kentzeko gomendixo bat?**  
Konfiantzia eukitzeko, gaur egun miña kentzeko tresnak dare eta.

**Urrezko legia hortzak ondo eukitzeko?**  
Ondo-ondo garbittu eta urtian behin dentistarenera juan.

**Gozozalia zara?**  
Ez asko.

**Janari eta edari bana?**  
Janariza, amak gertatutako zerbait; eta edateko, ura.

**Juergazalia zara?**  
Lehen, bai; oin, ez hainbeste.

**Denpora librian ze egitten dozu?**  
Lasai egon eta futbola ikustia gustatzen jat.  
**Realak, aurtan zer?**  
UEFArako sailkatuko dala uste dot.

**Jokalari bat?**  
Arkonada gustatzen jaten.  
**Irakurritako azken liburua?**  
*Los ojos del tuareg* (Vázquez Figueroa).

**Musika talde bat?**  
Abba.

**Zerekin egiten dozu barre?**  
Lagunekin.

**Pinpiriña zara?**  
Ez.

**Gustoko jantzi bat?**  
Larruzko txupa-k.

**Perfume bat?**  
*Annais annais*.

**Zure kolore faboritua?**  
Gorrixa.

**Bestiengan ze apreziatzen dozu?**  
Egixa esatia eta lagun ona izatia.

EDU MENDIBIL

NIRE BIDAIA HURA / Jesus Borobia

Venezuela / 1996ko abuztuan

**D**uela sei urte Venezuelara joan ginen lagun bat eta biok, antolatutako bidaiari. Hogeita zortzi eguneko bidaiak egin genuen, eta Venezuelak erabat liluratu gintuen. Zalantza barik, egin ditudan bidaietatik erakargarriena, beharbada, huraxe izan zen. Caracasen zegoen Azpeitiko abade batek komentatu zigunez, hiriburua oso arriskutsua da eta arratsaldeko zortzietatik aurrera hotolean gertatzea da onena. Egia esateko, ez genuen gauza aipagarriarik ikusi Caracasen. Handik aurrera autobus txiki bat eta barne hegaldiak tartekatatu genituen, Venezuela oso handia delako. Katalanak eta euskaldunak nagusi ginen bidaiarien artean, eta primeran moldatu ginen elkarrekin. Venezuelak sekulako aberastasuna du faunari dagokionez, eta parke nazionalak ikustekoak dira. Canaimakoan, esaterako, Salto del Angel izeneko ur-jauzia dago, munduko altuena. Turismo-hegazkin batetik ikusi genuen, eta paisaia zoragarria da.




“Canaimako parkean munduko ur-jauzirik altuena dago”

“Venezuelak oso fauna aberatsa du, sinestezina da benetan”

Bestalde, erdialdeko alubio-lautadan ere izan ginen, Los Llanosen. Orinoco ibaiak eta haren adarrek osatzen duten arroan abeltzaintza da nagusi, eta Venezuelako unaiak ikusten dira han, zaldian, kapela eta guzti, behiak-eta zaintzen. Felix Rodríguez de la Fuente sortutako Ato El Frio estazio biologikoa hantxe dago. Mundu osoko biologoak joaten dira, eta baten laguntzarekin pirinak harrapatzen jardun genuen. Denetik dago han: kaimanak, anakondak, era guztietako hegaztiak, eta abar.

Bidaiaren azken egunak Karibearen eman genituen, Los Roques izeneko parkean. Ez da Margarita uhartera bezain ezaguna, baina koralezko arrezife ikusgarriak daude eta snorkle egiteko leku aproposa da. Sinestezina da zenbat koloretako arrainak egon daitezkeen.

EDU MENDIBIL



Jesus Borobia, Venezuelako kostaldean ateratako argazkian.

- Ikastaro teoriko trinkoak euskaraz eta gaztelaniaz
- Ziklomotorreko lizentzia astebetean. AZTERKETARIK GABE!
- Izena ematean, %10eko deskontua Gazte Txartelarekin

Gaindi ezazu autoaren azterketa teorikoa 16 urterekin!

Telefonoa: 943 76 16 63. BERGARA

ARRAÑAGA  
A U T O E S K O L A

ESKUBALOIA

# Senior nesken eskubaloi taldeak Elgoibar hartuko du zapatuan Labegaraietan

Xabier Lijók eta Josu Zeziagak entrenatzen duten taldeak ligako lehen partidua jokatuko du domekan, 12:15ean

EDU MENDIBIL

**Bergara KEko senior nesken eskubaloi taldeak Elgoibarren aurka hasiko du liga domekan, Labegaraietako kiroldegian, 12:15ean. Aurretik, kadete nesken taldeak Zumaiaiko Pulporen aurka jokatuko du, 10:30ean.**

Senior nesken taldea dugu Eskubaloi Saileko aurtengo nobedadea. Bergarako taldeak Aloña Mendik utzitako lekua beteko du 2. maila nazionalean. Iaz, Bergarako hainbat jokalaririk ziren oñatiarrekin eta aurten, berriz, Oñatiko sei neska etorri dira Bergarara jokatuz. Lehen aldia da Eskubaloi Sailak senior nesken taldea plazaratzen duela.

Xabier Lijók eta Josu Zeziaga ditugu taldeko entrenatzaileak. Biek ere 1995ean utzi zioten senior taldean jokatzeari. Zeziaga kadete taldeko entrenatzailea izan zen duela urte batzuk eta Lijók kadete, gazte eta senior taldeak zuzendu izan ditu. 1999-2000 denboraldian senior taldeko entrenatzaile postua laga zuen. Zezeagak eta Lijók ilusioarekin ekin diote den-

boraldi berriari eta konfiantza osoa dute jokariengan.

Taldeak joan zen zapatuan egin zuen liga hasi aurreko azken proba. Kiroldegian jokatutako lagun arteko txapelketan Bergarak 15-9 irabazi zion Elorriori eta 9-11 galdu zuen jarraian Elgoibarren aurka.

Lijóren esanetan "oraindik hobera egin dezakegu, baina sailkapeneko goiko aldean egoteko moduko taldea daukagu. Jokalariak esperientzia daukate, eta ligan lehen bosten barruan sailkatzea izango da gure helburua".

Hamasei jokalaririk dira: Juncal Arruti, Nora Madariaga eta Leire Murillo atezainak eta Amaia Samaniego, Erika Arteaga, Olatz Manuel, Maitane Ruiz, Onintza Olabarria, Oihana Garmendia, Miren Zumalde, Oihana Iriondo, Elaia Iñurrategi, Ainhoa Unamuno, Naiara Arietaleanizbeaskoa, Sherezade Moreno eta Kristina Soares jokalaria. Murillo, Ruiz, Olabarria, Iriondo, Zumalde eta Soares oñatiarrak dira.

#### KADETE TALDEA PULPOREN AURKA

Seniorraz gain, kadete mailako taldeak ere etxean jokatuko du



Senior nesken taldea bigarren maila nazionalean arituko da. Domekan ligako lehen partidua jokatuko dute.

domekan. Oihana Garmendiak entrenatzen duen taldeak Zumaiaiko Pulporen aurka neurtuko ditu indarrak, 10:30ean.

#### SENIOR SASKIBALOIA, ETXEAN

Bestalde, saskibaloi sailari dagokionez, senior gizonezkoen taldeak kiroldegian jokatuko du

zapatuan. Ramon Condek zuzendutako jokalariek Elgoibarri egingo diote aurre zapatuan, kiroldegian, 19:15ean.

## Maite Muñoa medikuak 'Kirola egiteko 30 arrazoi' liburua kaleratu berri du

EDU MENDIBIL

**Bergarako anbulatorioan lanean ari den Maite Muñoak eta Luis Mari Zulaikak, haren senarrak, 'Kirola egiteko 30 arrazoi' liburua kaleratu dute, kirolarekiko motibazioa pizteko helburuarekin.**

Modu didaktikoan, Muñoak eta Zulaikak ariketa fisikoa egitearen onurak azpimarratu nahi izan dituzte eta liburua adin ezberdineko jendeari zuzenduta dago. Maite Muñoa mediku eibartarraren hitzetan, "kirolean has-teko adinean daudenen zaletasuna suspertzea, kirol jarduerarekiko motibazioa piztea, edo osasun-arazoak dituztenei kirolak terapia gisa dituen aukerak ezagutaraztea da gure helburua". Testuekin batera, liburuak marrazki asko dauzka eta euskara errazean idatzita dago.

Luis Mari Zulaika gimnasia irakaslea da, eta hark azaldu digunez, "zerbait erakargarria, motibatzailea, mundu guztiak ulertzeko modukoa baina, aldi berean, zientifikoa egin nahi genuen".



Maite Muñoa eta Luis Mari Zulaika, liburuaren egileak.

Muñoaren esanetan, eguneroko jardueretatik abiatuta erabaki zuten liburua idaztea: "Kontsultara etortzen zaizkidan gaixoe-tatik asko eta asko pastillak edo botikak hartuz behartuta zudela ohartu nintzen eta, euren bizi-ohiturak aldatuz gero, osasunak hobera egin zezakeela. Bizimodu sedentarioa ez da batere gomendagarria".

#### BIZI KALITATEA HOBETU

Izenburuak dioen bezala, kirola egiteko 30 arrazoi aipatzen dituzte: "Guztiak bakar baten laburbildu beharko bagenitu, zerrendan aipatzen den lehenengoarekin geldituko ginatke: bizi kalitatea hobetzen du; izan ere, frogatuta dago ariketa fisikoari esker osasuna hobetzen dugula. Kirola bera egiteaz gozatzen ika-

si behar dugu, nork bere mailaren, motibazioaren eta ezaugarrien arabera, aisialdirako aukera pertsonal gisa".

Pertsonaren edo adinaren arabera, kirol bat edo bestea egiteko komenigarritasuna aipatzen da behin baino gehiagotan. Aukera hori norberaren esku uztea onena dela uste dute Muñoak eta Zulaikak: "Ez gara mugatu behar kanpotik aditu batzuek erabakitako kirol jarduera zehatz bat bultzatzera. Nork bere eskura dituen aukeren artean gogoko dituen kirolak praktikatzea izango litzateke egokiena. Sistema kardiobaskularrari dagokionez, jarduera aerobikoak edo erresistentziazkoak dira egokienak: paseatzea, korrika, bizikleta edo igeriketa. Lokomozio-sistemari dagokionez, gorputzeko atal guztietako talde muskularrak lantzen dituzten jarduerak dira aproposenak".

Hortaz, hogeita hamar arrazoi nahikoa dira kirolaren garrantziaz jabetzeko. Liburuak 12 eurotan salgai dago eta [www.euskalnet.net/kirol30](http://www.euskalnet.net/kirol30) helbidean azalpen gehiago ikus ditzakezue.

KIROL ZERBITZUA

### Kuotaren %25 itzuliko diete nahi duten bazkideei

Kirol Zerbitzuak jakinarazi duenez, behin igerilekuak itxita, ordaindutako kuotaren %25 jaso nahi duten bazkideek urriaren amaiera arte izango dute izena emateko epea. Txartel zaharra eraman eta kontu-korrontearen zenbakia eman beharko dute Kirol Zerbitzuan. Bestalde, gainerako bazkideek Arrasateko, Oñatiko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako igerilekuetan erabili ahal izango dute txartela.

TXIRRINDULARITZA

### Mahai-ingurua urriaren 25ean Miguel Altunan

Bergara KEko 50. urteurreneko ospakizunen barruan, txirrindularitza aztergai izango da urriaren 25ean, Miguel Altunako aretoan, 19:00etan. Xabier Usabiaga kazetariarekin batera, Aitor Osa, Jon Odriozola, Jesus Aranzabal, Migel Bengoa eta Jesus Arroiabe egongo dira.



Argazkian, Bergarako hasierako hamaikakoa, zapatuan Gure Txokoaren aurka jokatu zuen partiduan.

FUTBOLA

## Bergarako preferente taldeak 7-0 irabazi zion zapatuan Gure Txokoari

E.M.

Preferente mailako futbol taldea uste baino errazago nagusitu zitzaion zapatuan Gure Txokoari. Ikusle gutxi izan ziren Agorrosinen, baina bertaratuak mahoneroen gol zaparradarekin gozatu zuten. Aurkariari zazpi gol egitea ez da eguneroko gauza.

Asier Rodríguezek, Jon Altolak, Oskar Maiztegiak, Gorka Martínezek, Gorka San Vicentek (2 gol)

eta Unai Kollanek egin zituñten bergararren golak. Atsedenean bi goleko aldea lortu zuten etxekok eta bigarren zatian bost gol egiteko gauza izan ziren. Kontraerasoan primeran moldatu ziren Juanina Garairen jokalaria, eta Gure Txokoak nahiko irudi eskasa azaldu zuen.

Agorrosingo hainbat zaleren esanetan, 1980. urtea ezker Bergarak ez zuen holako emaitzarik lortzen; urte hartan, Bergara 6-0 nagusitu zitzaion Barakaldori, Agorrosinen, 3. mailan.

Zapatuan Hondarrribian jokatuko du Bergarak eta urriaren 27an Aloña Mendiren aurkako derbia izango da Agorrosinen.

### HIRU PARTIDU ASTE BUKAERAN

Euskal Ligan ari den gazte taldeak Zarautzen aurka jokatuko du zapatuan Agorrosinen, 16:30ean. Bigarren mailako kadeteek Amaikak Bat hartuko dute zapatuan Ipintzan, 18:30ean, eta lehen mailako kadete taldeak Zestoa izango du bisitari domekan, 16:30ean.

## Javier Clemente Gure Ametsa elkartean hizlari izango da datorren eguenean, hilaren 24an

E.M.

Gure Ametsa elkarteko Kultura batzordeak antolatuta, Clemente futbol entrenatzailearen hitzaldia izango da eguenean, hilaren 24an, San Antonioko elkartean, 20:00etan. Gure Ametsakoek urteko programazioari ekingo diote Clementeren hitzaldiarekin. Entrenatzaile bizkaitarrak futbol kontuez jardungo du eta bertara joaten direnek galderak egin ahal izango dizkiote.

Javier Clementek (Barakaldo, 1950) ibilbide luzea egin du futboleant. Athleticen jokatu zuen, baina gazte utzi behar izan zuen

futbola, lesio baten erruz. Entrenatzaile titulua eskuratu ondoren, Athletic zuzendu zuen eta bi liga eta Errege kopa bat eskuratu zituen bilbotarrekin, 1983an eta 1984an. Espanyoleko, Atletico Madrilgo, Betisko, Realeko, Marseillako Olympiqueko eta Tenerifeko entrenatzaile ere izan da, eta 1992tik 1998ra bitartean Espainiako hautatzailea izan zen.

### HITZALDIAREN OSTEAN, AFARIA

Egueneko hitzaldiaren ostean afaria izango da Gure Ametsan. Afarira joan nahi dutenek astelehenera arte dute izena emateko. Prezioa 24 euro izango da.



Javier Clemente.

ARGAZKI PRESS

## Gipuzkoako Txapelketako bi partidu bihar frontoian

E.M.


Gipuzkoako Txapelketako bi partidu jokatuko dira bihar, zapatua, Udal Pilotalekuan, 12:00etan. Gazte mailako Bergarako bikoteak Antzuolako bikotearen aurka jokatuko du eta horren ondoren, lehen mailako senior mailan, Edu Samaniego buruz buru arituko da Lazkaoko ordezkariaren aurka.

Joan den egubakoitzean Udal Pilotalekuan jokatutako jardunaldian Bergarak ez zuen emaitza onik lortu: kadete mailan

Ander Usaolak eta Jon Larrañagak 20-22 galdu zuten Antiguoko bikotearen aurka; Igor Apraizek eta Beñat Iñarra 2. mailako senior bikoteak ere 12-22 galdu zuen añorgarrekin, eta Ander Mugu-ruzak eta Igor Gutiérrezek 19-22 galdu zuten Zazpi Iturriren aurka, lehen mailako seniorretan.

Domekan, berriz, Edu Samaniego Alztatarra taldeko Urrusolori 10-22 nagusitu zitzaion, Lasarten. Samaniegok ez zuen inolako eragozpenik izan garai-pena eskuratzeko.

### FOTOKIROLA



### Gimnasia Erritmiko Txapelketa zapatuan

Gipuzkoako Gimnasia Erritmikoko Taldekako Txapelketa jokatuko da bihar, zapatua, kiroldegian, 17:00etan. Donostiako eta Eibarko Ipuruua taldeetako 40 bat gimnasta izango dira lehian, tartean, Ipuruan ari diren Leire Lasa (argazkian), senior mailan, eta Sarai Gallego, infantil mailan, bergararrak.

### LABEGARAIETAKO FUTBITOTXAPELKETA

#### ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK

##### ZAPATUAN, BARRUAN

10:30: K. Piperrak-La Q. del Buitre. Torrekua  
11:30: De Ore-Torrekua. K.Piperrak

##### DOMEKAN, BARRUAN

16:00: Errotagain-Argandolas. Mongatx.  
17:00: Mongatx.-Las p. de Sat. A Ze Flaxa  
18:00: A Ze Flaxa-Dedo Pafarru. Bildurba.  
19:00: Bildurbarek-A Ze Flaxa. C.Nucleico  
19:00: C.Nucleico-Getokuak. Bayer

Babeslea

**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

Gaur egungo eta lehengo 25 talde ingururen kanta bana jasoko du diskoak; aldizkariak, berriz, talde bakoitzaren biografia, elkarrizketak eta argazkiak

# Gaztetxeak herriko taldeen kantu bilduma banatuko du 'Astindu' fantzinearekin

MONIKA BELASTEGI

Gaztetxeako 'Astindu' fantzinearen abenduko alea berezia izango da benetan. Herrian dauden eta egon diren rock taldeen gaineko informazio sakona jasoko du. Gainera, CD bat izango du osagarri: talde horien guztien kantu bana jasoko du diskoak.

Zazpigarren alea kaleratu ondoren, *Astindu* aldizkariaren zortzigarrena berezia izatea nahi zuten gaztetxeako kideek. Berezia, batez ere, edukian, eta hala ere izango da abenduan kaleratuko dutena: azken urteotan Bergaran izan diren taldeen gaineko zenbaki monografikoa izango da. Lehengo eta gaur egungo musika taldeen gaineko informazioa jasoko du *Astindu*-k, 25 talde ingururen biografia, elkarrizketak eta argazkiak, hain justu ere.

*Astindu*-ko kide Lander Juaristiren eta Iñigo Herrerosen esanetan, "Bergaran rock talde ugari dago, baina herriak ez du errealitate hori ezagutzen. Herriarrek ez dakite zein talde dauden herrian eta zer-nolako lana egiten duten. Denbora luzea ematen dute entseguetan, nor bere lokalean, baina oso aukera gutxi dituzte euren lana ezagutzera emateko. Guk lan hori guztia *Astindu* fantzinean islatu eta ezagutzera ematea erabaki dugu. Azken baten, hori da aldizkariaren helburua: gazteen mugimenduak ezagutzera ematea, alegia".

## DISKOA ALDIZKARIAREN OSAGARRI

Aldizkariako gaia herriko musika taldeak izanik, "informazioa bera bakarrik hanka motz geratuko litzatekeela pentsatu genuen". Hori dela eta, aldizkariarekin batera CD bat banatzea pentsatu zuten, aldizkarian agertuko diren taldeen kantu banarekin.

Asmo horrekin batzarra egin zuten gaur egun herrian dauden musika taldeetako ordezkariak. Juaristiren eta Herrerosen esanetan, "pozik eta ilusio handiarekin jaso zuten proiektua". Gehitu dutenez, "taldeek zuzenean kontzertuak egiten dituzte, baina oso gutxi dute aukera grabatzeko, eta proiektu honekin grabazioa zer den ikusteko aukera izango dute, baita euren lana grabatzeko ere".

## GAZTETXEA GRABAZIO-ESTUDIO

Diskoa osatzeko bi iturri erabili dituzte fantzineko kideek: bategatik, badira hainbat talde disko propioa dutenak: Requiem, Fly Shit, Cool Panic eta X-at, esaterako. Kasu horretan, aukeratutako abestia disko berrian txertatu baino ez dute egin behar.

Baina talde gehienek, hamaik, hain zuzen, ez dute disko-



Joan den eguaztenean hasi eta azaroaren lehen astera bitartean, herriko hamasei musika taldek kantu bana grabatuko dute gaztetxean. Argazkian, Dog Bite taldea.

*'Astindu'*  
fantzinearen ale  
berriak rock taldeak  
ezagutzera ematea  
izango du helburu

rik; hortaz, disko berrirako kantua grabatu egin behar dute. Eta horretan ari dira egunotan, gaztetxean. Joan den eguaztenean hasi eta azaroko lehen astera arte grabazio-estudio bihurtu da gaztetxea: 16 talde horietako

*'Astindu'*-rekin  
batera banatuko  
duten CDa egunotan  
ari dira grabatzen,  
gaztetxean

bakoitzak bere grabazio egun eta ordua dauka, eta hantxe grabatuko du diskorako abestia.

## EKOIZPEN PROPIOA

Iñigo Herrerosak hartu du bere gain grabazioa egiteko lana. So-

*Abenduan,*  
*Gabonetan*  
*seguruenik,*  
*aurkeztuko dute*  
*diskoa*

nu teknikaria da eta hura ari da talde bakoitzaren kantua grabatzen. Ez da lan makala, gainera, Lander Juaristik azaldu duen moduan: "Taldea bakoitzarekin, batez beste, hiru ordu eta erdi ematen du Herrerosak grabazioa

egiteko. Kontuan hartu behar da, gainera, oinarrizko teknologia dugula, eta horrek zaildu egiten du lana. Bestalde, emaitza ez da izugarrikoa izango, baina esku artean ditugun baliabideekin lan txukuna egiten ari gara".

## LEHENGO TALDEAK

Gaur egungo taldeekin batera dagoeneko desagertuta dauden Angiolillo, Daxka, Bost Axola eta Spok taldeen kantuak ere jasoko ditu diskoak. Dena dela, gaur egungo taldeen atala guztiz lotuta dagoen neurrian, lehengo hainbat taldeekin oraindik hartu emana egiteko dute.

## Abenduan aurkeztuko dute

**G**rabazio lanak bukatu eta aurrez diskoa duten gainerako taldeen kantuak batu ondoren, azaro erdi aldera kantu guztiak estudio batera bidaliko dituzte, masterizatzen. Gero, ekoizpen-etxe batera bidali, eta diskoaren 1.000 kopia inguru kaleratuko dituzte.

Diskoa *Astindu* fantzinearen zortzigarren alearekin batera zabalduko dute. Gaztetxeako kideen iritziz, "gauzak ondo badoaz Gabonetan aurkeztuko dugu. Horretarako, bizpahiru kontzertu emango ditugu gaztetxean. Gure nahia da diskoan agertzen diren taldeek parte hartzea, baina oraindik ez dakigu guztiak parte hartuko duten".

Kontzertuetarako sarrera erosi eta aldizkaria eta diskoa eskuratzeko aukera egongo da. Horrez gain, *Astindu*-ren aurreko aleekin egin izan duten bezala, herriko tabernetan ere utziko dituzte hainbat ale. Prezioa edozein poltsikotarako modukoa izango da, gaztetxearen asmoa "gastuak estaltzeko adina jasotzea besterik ez da-eta".



Iñigo Herrerosak -gaztetxeako kide eta soinu teknikaria- du grabazio ardura.



MEDICUS MUNDI

Ekuadorrek 400.000 petrolio gordin upel ekoizten ditu egunero; urteko petrolio ekoizpenaren %99 Amazonastik dator.

Medicus Mundik antolatutako argazki erakusketa da eta sentsibilizazioa du helburu

## Yana Curi, Amazonasko urre beltzari buruzko erakusketa

MONIKA BELASTEGI

**Yana Curi edo urre beltza erakusketak Amazonasen (Ekuador) petrolioak eragiten dituen kalteak jasotzen ditu argazkitan. Kultura etxean egongo da ikusgai, urriaren 18tik 27ra bitartean.**

Yana Curi argazki bildumak Amazonasen (Ekuador) eta biztanleen osasunean petrolioaren esplotazioak eragiten dituen kalteak erakusten ditu. Azken baten, kutsadurak ingurumenean eta osasunean dituen eraginak islatzen ditu.

Yana Curik *urre beltza* (petrolio) esan nahi du Amazonaseko

komunitate indigena zabalarendako: txitxuendako.

### SENTSIBILIZAZIO KANPAINA

Yana Curi erakusketa kolorezko 43 argazki osatzen dute, eta argazkien egilea Manuel Charlón da. Horrez gain, Medicus Mundi elkartearen sentsibilizazio kanpaina baten barruan dago. Eta sentsibilizazio kanpaina horren helburua da iritzi publikoa sentsibilizatzea petrolioaren esplotazioak sortzen dituen kalteen gainean. Era berean, beste helburu bat ere badu argazki erakusketak: petrolioaren jarduerak osasunean duen eragina aztertzeke ikerketa bultzatzea eta Amazonasko minbizia aztertzea.

### MUNDUAREN BIRIKA

Erakusketak, bestalde, Amazonas munduaren *birika* dela erakusten du, baina gaur egun gaxorik dagoela: ehunka petrolio putzuk 4,3 milioi galoi hondakin toxiko sortzen dute egunero. Eta galoi horiek guztiak ingurumenera botatzen dituzte aurretrahamendu barik. Horiek eta beste hainbat irudi ikusi ahal izango dira erakusketan.

Erakusketa urriaren 18an irekiko dute eta hilaren 27ra arte egongo da zabalik, kultura etxean. Ordutegia: astelehenetik egubakoitzera, 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan eta jaiegunetan, berriz, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

## XVI. eta XVIII. mende arteko musika Le Badinage taldearekin

MONIKA BELASTEGI

**Haendel musikariaren konposizioak eskainiko ditu Le Badinage taldeak bihar, zapatua, 19:30ean, Mariaren Lagundia Ikastolako elizan egingo duen kontzertuan. Sarrera doan izango da.**

Le Badinage XVI. eta XVIII. mende arteko erreperorioan espezializatutako taldea da, eta instrumentu originalak erabiltzen ditu, batez ere, 2000. urtean sortu zen taldea, Donostiako Hamabostaldi Musikalean, eta kide guztiek esperientzia zabalak dute antzinako musikan; izan ere, Musica Reservata, Kontakarion eta Ensemble Durendal taldeetan ere aritu izan dira Le Badinageko musikariak.

Le Badinage hainbat musikaririk osatzen dute, eta emanaldi bakoitzeko egitarauak dituen beharren arabera, kide horietan

ko batzuek edo besteek hartzen dute parte.

Bergaran egingo duten emanaldian lau kide arituko dira: Olatz Saitua, sopranoa; Francisco Herrero, biolina; Loreto Aramendi, klabea; eta Sorkunde Idigoras, zango-biola.

### HAENDEL KONPOSITOREAREN DOINUAK

Georg Friedrich Haendel musikariaren lanean oinarrituko dute bihar Bergaran egingo duten emanaldia: hain zuzen, *Neun deutsche arien* (*Bederatzi aria aleman*) eta *Sonata op.1 n° 13 en Re* Meskainiko dituzte.

Arien kasuan, 1724. eta 1727. urte bitartean idatzi zituen, baina 1921. urtera arte ez ziren argitaratuak izan. B.H. Brokes poetaren testuak dituzte oinarrian eta Haendelek alemanez konposatutako azkeneko piezak dira.

Emanaldia Mariaren Lagundiako elizan izango da, 19:30ean, eta sarrera doan izango da.



LE BADINAGE

Idigorasek, Saituak, Aramendik eta Herreroek egingo dute emanaldia Bergaran.

## San Joxeperen ereserki berria joko du Bandak domekan

MONIKA BELASTEGI

Domekan, urriaren 20an, Bergarako Udal Musika Bandak egingo duen emanaldian San Joxepe erretiratuen elkarteko ereserkia estreinatuko dute.

*San Joxepeko abeslariak* izena du ereserkiak; musika Miguel González Bastidak konposatu du eta hitzak, berriz, Marcos Labaiekin egin ditu. Horrez gain, ereserki bandarendako eta abesbatzarendako eginda dago, nahiz eta moldaeraza den, eta edozein egokitzapen egiteko modukoa. Izan ere, San Joxepeko abesbatzaren neurritan egindako lana da, talde horrek egiten duen ema-

naldi mota kontuan hartuta egingakoa. Iraupenari dagokionez, lau minutu eta erdi inguruko ereserki da.

### UDAL MUSIKA BANDA ETA SAN JOXEPE ABESBATZA

Udal Musika Bandaren emanaldia 12:30ean izango da, Udal Pilotalekuan, eta honako erreperorioa izango du: M. Rojas-en *Nerva* pasodoblea; T. Hagiwara-ren *Japanese graffiti*; J. Hadermannen *Laura* intermezzoa eta T. Breton-en *La Dolores* jota.

Bandak lau lan horiek egin eta gero, San Joxepe elkarteko ereserki joko dute, San Joxepe abesbatzarekin batera.



LE BADINAGE

Idigorasek, Saituak, Aramendik eta Herreroek egingo dute emanaldia Bergaran.

## ZAHARREN ETXETIK

# Jaialdi artistiko eta musikala izango da gaur gauean Udal Pilotalekuan, erretiratuen eskutik

EDU MENDIBIL

**J**aialdi artistiko eta musikala iragarri dute erretiratuek gaurko, egubakoitza. 22:00etan hasita, Ariznoa gimnasia erritmiko taldea, Oñatiko Ganbara abesbatza eta Iruñeko Los Pamplonicas jotari taldea izango ditugu Udal Pilotalekuan. Sarrerak 5 euroren truke eskura daitezke, aurrez, eta 6 eurotan frontoiko txarteldegian.

Kultur Hamabostaldiaren programazioaren barruan, Antzuolako eta Bergarako erretiratuek herritar guztiei zuzendutako jaialdia antolatu nahi izan dute. Horrenbestez, gimnasia erritmikoa, musika korala eta jotak uztartzen dituen jaialdia prestatu dute gaurko, egubakoitza.

Ariznoako gimnasten erakustaldiaren ondoren, Oñatiko Ganbara abesbatzak hainbat kantu eskainiko ditu. Taldea orain dela zortzi urte sortu zen eta gaur egun hogeitaz lagun ari dira bertan. Ganbara abesbatzak Entzuleen saria eskuratu zuen aurtengo Arrigorriaga Abeslari Lehiaketan. Esteban Urtzelaireren zuzendaritzapean, besteak beste, honako piezak abestuko dituzte gaur:



Los Pamplonicas jotari taldeak gaur gaueko jaialdian hartuko du parte.

*On suuri sunn rantas* (Hyökki), *Suari kanta* (David Azurtza), *Ronda katonga* (Roballo), *Sorgin dantza* (Mokoroa) eta *Ain't got time to die* (Johnson).

Jaialdia bukatzeko, Los Pamplonicas boskoteak Nafarroa aldeko jotak ekarriko dizkigu. Olga Iriso dugu taldeko abeslari nagusia, eta harekin batera Julio Sán-

chez (panderoa eta bigarren ahotza), Arkaitz Aznar (bigarren ahotza), Itziar Espartza soinu jotzailea eta Javier Marañon gitarrista arituko dira taula gainean.

Tafallako eta Erriberako jotak abestuko dituzte, pieza ezagunak askorendako: *La flor del romero* (Turrillas), *No te vayas de Navarra* (Jaen), *Entre flores muy galanas* (Luis Pozos), *Tengo plantada una flor* (Lanas) eta *Búscame en el Carrascal* eta *Si rodando por la vida* herrikoiak, besteak beste.

Los Pamplonicas eskarmentu handiko taldea da, eta Euskal Herriko toki askotara iritsi dira jotekin. Emanaldia ikusleen gustukoa izateko itxaropena azaldu dute antolatzaileek.

## SETIENEN HITZALDIA MARTITZENEAN ETA MAHAI-INGURUA EGUENEAN

Kultur Hamabostaldiarekin jarraituz, datorren martitzenean, hilaren 22an, Jose Maria Setien Gipuzkoako gotzain izandakoak *Geure bizitza pozik bizi izatea* izenburuko hitzaldia egingo du Miguel Altunako aretoan, 19:30ean; eguenean, berriz, ordu eta toki berean mahai-ingurua izango da. Kultur Hamabostaldian hizlari izan diren Vicente Madoz psikiatra, Agustin Ozamiz soziologoa eta Setien bera izango dira mahai-inguruan eta Patxi Leturia psikologoa izango da moderatzailea. Osasun integrala -hamabostaldiaren leloa, hain zuzen- izango dute aztergai.



## San Joxepekoak Urbian eta Aialan

San Joxepeko lagunek Urbiara irteera egin zuten urriaren 2an. Urbiara igo eta gero, 25 lagun (argazkian) izan ziren hango ostatuan bazkaltzen. Bestalde, 70 lagun inguruk hartu zuten parte urriaren 10ean Aialako haranera egingako irteeran; Artziniega eta Kexaa bisitatu ostean, Amurrioren bazkaldu zuten. Eta arratsaldean Gorbeiaiko merkataritza etxean izan ziren.

Arotz lanetan behar duzun guztia



**AZKARATE**  
AROSZTEGIA

Telleria, 19 B-0-2 B-0-3. BERGARA  
Tel.: 943 76 47 19.  
ARETXABALETA Tel.: 943 77 01 24



**ARDATZA**

Brikolaketa

Masterreka, 4 behea.  
Tel.: 943 76 18 93  
BERGARA



**ANTIA**

HARATEGIA URDAITEGIA


*Txahal, idi,  
txerri, bildots,  
untxi eta  
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA  
Tel. 943 76 15 09

**INFERNUKUA**  
**TABERNA**

Masterreka 23. BERGARA. 943 76 18 49

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBEBEZIBAR

Non dago frontoi hau?

PINTOREBERGARARRAKGAUR

Usoa Mendikute

EDU MENDIBIL

Azken boladan Londresen bizi da Usoa Mendikute (Bergara, 1976), eta hango taberna baten laster bere lana erakusteko asmoa dauka. "Lanetik irtendakoan, etxean pintatzen dut, tartetxo bat daukadanean". Usoak Arte Ederretako ikasketak egin zituen, Leioan, eta pintatzeko zaletasuna agian senideetatik dator kiola dio: "Aitonari izugarri gustatzen zaio pintatzea, egurra lantzea ere bai... Betidanik gustatu izan zait pintatzea, buruan dudan zerbait berri hori margolan batean gauzatzea. Gauzak sortzeko askatasun hori ederra da oso". Pop estiloa, surrealismoa edo inpresionismoa jarraitu dituzten pintoreak ditū gogoko: "Iragarki, komiki, egunkari... eta egunero esku artean erabiltzen ditugun abiapuntutzat hartzen ditut. Ildo horretan, jendeari nire lana ulergarriagoa egiten zaio. Pintore moduan nire lana nire eta inguruko en gustukoa izatea lortu nahi dut".

UNED ikastetxeak 25. urteurrena ospatzeko antolatutako lehiaketan 3. saria lortu du aurten: "Ilusio handien egin didan saria izan da, toki askotako jendeak parte hartu duelako".

*"Margolariok gauzak sortzeko daukagun askatasun hori ederra da oso"*



E.M.

GALDEDEBALDE

1.

Nola du izena Aranzadik Elosua-Plazentzia estazio megalitikoan aurkitu duen dolmenak?

- A/ Arribirilleta.
- B/ Tranpaluarri.
- C/ Irutontorreta.

2.

Zeintzuk konposatu dute San Joxepe elkartearen ereserki berria?

- A/ González Bastidak eta Tomasa Zabaletak.
- B/ González Chirlaquek eta Elexpuruk.
- C/ González Bastidak eta Marcos Labaienek.

3.

Hiru futbol talde hauetatik zein da Javier Clemente entrenatzaileak zuzendu ez duena?

- A/ Reala.
- B/ Marselliako Olympique.
- C/ Osasuna.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ANE BLANCOrendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Ane! Galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Bidekurutzetan / Galde debalde: 1-A, 2-B, 3-A.



BONOFOTOA .....

GALDE DEBALDE 1/ ..... 2/ ..... 3/ .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Gran Duque ardoa

Beltza, gorria edo zuria. Litro bateko bi brik

1€

166 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



Eramateko oilasko erreak

5€

943 76 48 08  
Zubieta 26  
BERGARA

KONDE PANADEROKUA

Burdiñate 1  
943 76 02 57  
Toki Eder plaza 3  
943 76 14 87  
BERGARA

EDEL TAPIZDENDA

*Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena*

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA



BERGARA  
**Kepa Sansiñena**  
Urriaren 18an 6 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Iñaki Olabarria**  
Urriaren 18an 3 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Malen Olañeta**  
Urriaren 21ean urtebete.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Andres Alzelai**  
Urriaren 23an 77 urte.  
Zorionak! Familiakoak,  
Oihana eta Amaia.



BERGARA  
**Idoia Aiastui**  
Urriaren 21ean 5 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak.



BERGARA  
**Markel Barrocal**  
Urriaren 20an 2 urte.  
Urte askotarako!  
Familiakoak eta lagunak.



BERGARA  
**Maitane Arteaga**  
Urriaren 19an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Borja Berroia**  
Urriaren 16an 6 urte.  
Zorionak! Etxekoak;  
batez ere, Maria.



BERGARA  
**Jabier San Torcuato**  
Urriaren 17an 4 urte.  
Urte askotarako!  
Gurasoak eta Mikel.



BERGARA  
**Olatz Muruamendaraz**  
Hilaren 18an 3. Zorionak!  
Etxekoak eta Xabi.



BERGARA  
**Eneko Lizarralde**  
Urriaren 23an 9 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.



BERGARA  
**Julen Herran**  
Urriaren 20an 5 urte.  
Urte askotarako!  
Etxekoak.

**Adi!** Argazkiak emateko lekuak:  
**Bergara:** Berrigara, Irizar jauregia, Barrenkalea 33  
**Antzuola:** Udal Liburutegia, astelehenetan 17:00etatik 19:00etara  
**Elgeta:** Erosle-Baltxongua

# Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak  
BERRIGARAREN bidez! Ekar ezazu bere argazkia\*  
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

\*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm. / Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu. / Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, BERRIGARAn agertu ondoren. / Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.

**AGOITZ**  
tapiz  
denda

Leizariako  
San Lorentzo, 25  
BERGARA  
Tel.: 649 112 675

ile  
apaindegia

edertze gela

**disdira**

Masterreka, 7. BERGARA  
Tf. 943 76 00 55

**TELEIXA  
BILTEGIAK**

Eraikuntza  
materialak

Telleria (Labegaraieta)  
BERGARA  
Tf. 943 76 27 93

**ETXE BERRIA**

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA  
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**ezpeleta**  
Ostalaritzarako  
ehungintza

Ostalaritza eta  
egoitzetarako  
mahai-zapi eta  
industri-ehunak

San Lorentzo 1, Bergara  
Tf. 943 76 28 77  
Tf. eta faxa: 943 76 17 09

**Ganbara**  
TABERNA

Heure erara  
ibiltzeko!

Irala z/g.  
BERGARA  
Tel. 943 76 55 75



**IRRINTZI**  
kafetegia

Irala 3. BERGARA  
Tel.: 943 76 48 26

**ETXAGI**  
JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,  
JAUNARTZEAK,  
EGUNEROKO MENUA,  
GOSARIAK,  
BAZKARIAK...

Masterreka, 8  
BERGARA  
943 76 53 12

**DEBA  
GARAIA**

INMUEBLE ETA FINANTZA  
AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar  
Telefonoz Aranzadi 2 behea  
943 76 21 80 / 943 76 06 37



#### ALBAITARIAK

**ARATZ KLINIKA (Lazpiur Roman)** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, sakelakoa: 607 48 71 19

**BALDANA** Koldo Elizalde 28. 943 76 27 97, sakelakoa: 630 764 545

**ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

**ETXEBERRIA Julio (Debagoieneko albitari ofiziala)** 943 76 43 29, sakelakoa: 609 54 16 13

**IRASTORZA BENGOA Sabin (Granjako animaliak)** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46

#### ANALISI KLINIKOAK

**LABORRA Isabel** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### BARNE MEDIKUNTZA

**IRIGOIEN Victor** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06

#### DENTISTAK

**AGIRRE HORTZ KLINIKA** Ibargarai 9, 1-B. 943 76 00 23

**ARAMBURU HORTZ KLINIKA** Telesforo Aranzadi 1, behe. 943 76 02 46

**ASTIAZARAN SOLOZABAL** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95

**BERGARA HORTZ KLINIKA** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77

**GOROSABEL J. Alberto** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 56 88

**GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S.** Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54

**IRIARTE Idoia** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65

**TRIPALDI Enrike** Fraiskozuri 1, 2. 943 76 70 76

#### ERREHABILITAZIO FISIKOA

**LOPEZ DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74

#### FISIOTERAPEUTAK

**ARZAK Miren** (Jarrera-berreziketa orokorra). Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

**BASTERRETXE, Maria** Artekalea 1, 1-H. 943 76 43 71

#### HOMEOPATA

**GANUZA Susana** Ramon Maria Lili 2. 943 76 59 39

#### MASAILARIAK

**AZPEITIA Irupe** Ibargarai 44, behe. 943 76 73 43

**CASANELLAS Jabier** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78

**ETXEBERRIA Ana** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13

#### MEDIKUNTZA ESTETIKOA

**BENITO Isabel** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62

#### MEDIKUNTZA OROKORRA

**OXIRONDO KONTSULTATEGIA** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50

#### PODOLOGOAK

**ALTUBE Edurne** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84

**AZPIAZU Arantzazu** Herri Lagunak z/g. 943 76 41 32

#### PSIKIATRA

**GALLASTEGI Pablo** San Martin Plaza 2, 1-ek. 943 76 26 64

#### PSIKOLOGOAK

**PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA** (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea). 943 76 14 80

**URKAREGI Pakita** (Psikologo klinikoa). 943 76 53 13

**ZUBILLAGA ZABALA Marisa** (Psikologo klinikoa). 943 76 30 76

#### YOGA

**SAMADHI YOGA** Masterreka 13, behe. 943 76 11 38, sakelakoa: 639 235 753

BERGARAKO  
**OSASUN GIDA**  
OSASUNEZ BIZI IZATEKO.

# Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2002ko urriaren 18a / 130. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com

## Umeak zaintzeko zerbitzurik behar den jakin nahi dute

AINTZANE IRIZAR

Pausoka gurasoen elkarteak inkesta bat banatuko du ume txikiak dituzten herriko gurasoen artean. Inkesta horretan batutako erantzunen bitartez, umeak zaintzeko zerbitzuren baten beharra ikusten duten jakin nahi dute Pausokakoek.

Pausoka gurasoen elkarteak umeak zaintzeko zerbitzuren baten beharra ikusten du herrian. Baina, beste ezertan hasi baino lehen, ume txikiak dituzten herriko gurasoen iritzia jaso nahi dute Pausoka elkarteak.

Horretarako, inkesta bat banatuko dute gurasoen artean. Gaur bertan, egubakoitza, banatuko dituzte inkestok etxez etxe. Behin galdetegia beteta, udal-txean dagoen postontzira bota behar dira inkestak. Inkesta horiek izenik gabe bota behar dira postontzira, anonimoak izango dira erantzunak.

Inkesta horretan hainbat galdera egingo dizkiete gurasoei, hala nola: ea euren umeak haurtzaindegira eramango luketen, zaintza zerbitzurik erabiliko luketen, eta abar.



Umeak zaintzeko zerbitzurik behar ote den jakin nahi du Pausokak.

### GERO ETA ZERBITZU GEHIAGO

Badirudi gero eta zerbitzu gehiago daukagula herrian. Aurtengo ikasturtean bertan zabaldu dute Herri Ikastetxean umeendako jantokia. Orain, umeak zaintzeko zerbitzu baten beharra azter-

tzen hasi dira gurasoen elkarte-ko kideak. Dena dela, argi laga behar dugu, oraingoz, behintzat, zerbitzu horren beharra neurtea dela euren lehendabiziko asmoa, eta horren arabera lan egingo dutela aurrerantz.



### Extremaduraren Eguna Antzuolan

Arrasateko Corazón de Encina elkarteak Extremadurako hainbat produktu tipiko dastatzeko aukera eskaini zigun joan den domeka goizean, herriko plazan. Jende ugari batu zen hantxe, Debagoieneko Migas Extremeñas Eguna ospatu eta Espainiako herrialde hartako jakiak dastatzera. 'Miga' edo ogi-mami ezagunak izan ziren nagusi, baina bestelako hainbat plater ere prestatu zituzten. Extremaduratik ekarritako hainbat edari mota dastatzeko aukera ere egon zen./A.I.

## KIROLA

### Bihar, zapatua, hasiko da Pilota Txapelketa

AINTZANE IRIZAR

Hamar bikote bigarren mailan eta beste sei lehenengoan lehiatuko dira Olalde elkarteak antolatutako herriko Pilota Txapelketa. Bihar, zapatua, hasi eta abenduaren 14ra arte, zapatuero jokatuko dituzte txapelketako partiduak, goizez eta arratsaldez.

Ohi bezala, bi mailatan banatu dute txapelketa Olalde elkarteak antolatzaileek; lehen mailan sei bikotek eman dute izena, eta bigarrenean, berriz, hamarrek. Maila bietan 18 tantora jokatu behar-ko dituzte partiduak.

Bigarren mailan bost bikoteko bi talde egin dituzte, eta talde bakoitzeko lehenengo biak sailkatuko dira Pilota Txapelketako finalerdietarako.

### HAMASEI BIKOTE GUZTIRA

Guztira, herriko hamasei bikotek eman dute izena herri mailako Pilota Txapelketa horretan.

Lehenengo mailan honako bikote hauek arituko dira: Biteri-Unanue, Aranburu-Lizarralde, Arbulu-Mendizabal, Larrea-Azkarate, Larrea-Aranguren eta Larrañaga-Oruesagasti.

Bigarren mailan, berriz, honako hauek: Zabaleta-Mendizabal, San Sebastian-Iparragirre, Aranburu-Rodríguez, Lezeta-Aranburu eta Sánchez-Pagalda A taldean, eta Iturbe-Ormazabal, Aristi-Rodríguez, Zubillaga-Elortza, Jauregi-Muguruza eta Balerdi-Bideluze, berriz, B taldean.

Bai lehenengo mailan eta bai bigarrenean, azaroaren 30ean jokatuko dituzte finalurrekoak, eta abenduaren 14an, berriz, finalak izango dira.

## LABUR

### Literatura lantegia azaroaren 16an hasiko da, eta bost zapatutan izango dira saioak

Dagoeneko zabalik dago Udal Liburutegiak antolatutako Literatura lantegian izena emateko epea. Liburutegian edo udaletxean eman behar duzue izena, eta 20 euro ordaindu. Tere Irastortza idazleak eskainiko du ikastaro hori, eta oso praktikoa izango da. Estilo literarioan idazten ikasteko aukera paregabea izango dugu, bada, lantegi horretan: gutunak, narrazioa, poesia, ipuinak...

### Artikutzara irteera egingo dute hilaren 27an, Arrola elkarteak antolatuta

Azaroan egitekoak ziren Artikutzarako irteera datorren asteko domekan, urriak 27, egingo dute Arrola elkarteak. Irteeran parte hartzeko, martitzenean, hilak 22, eman behar duzue izena, 19:00etatik 20:00etara. Bestalde, esan behar dugu bertan behera laga dute-la oraingo domekan egitekoak ziren perretxiku erakusketa.

### Patata-tortilla lehiaketa jokatu dute datorren urriaren 26an, zapatuan

Datorren astelehenean, urriaren 21ean, bukatuko da lehiaketa horretarako izena emateko epea. Bi mailatan antolatu dute lehiaketa: batetik, bosgarren eta seigarren mailako ikasleek parte har dezaketek; eta, bestetik, DBHko lehenengo eta bigarren mailakoek. Talde bakoitza, gutxienez, lau lagunekoa izango da. Urriaren 26an, hasiko dira lehiakideak lanean, 16:30ean, herriko plazan.

KULTURA

# Argazki lehiaketarako epea zabalik, urriaren 23ra arte

AINZANE IRIZAR

Urtero bezala, Argazki lehiaketa antolatu du Udaleko Kultura Sailak. Urriaren 23a, eguaztena, izango da lehiaketarako lanak aurkezteko epea. Hurrengo aste bukaeran (urriak 26 eta 27), erakusketa egingo dute, Olanan etxean, aurkeztutako argazkiekin.

Aurreko asteaz geroztik zabalik dago Argazki lehiaketarako lanak aurkezteko epea, eta datorren eguaztenean amaituko da.

Antzuolan jaio edo bizi den edozeinek har dezake parte lehiaketa horretan, eta bakoitzak, gehienez, hiru argazki aurkeztu ahal izango ditu, zuri-beltzean edo koloreetan. Argazkiak norberak nahi duen tamainakoak izan daitezke, baina euskarriek 30x40 zentimetroko neurria izan beharko dute, eta beix kolorekoak izan beharko dute.

**HIRU MAILA BANATUKO DITUZTE**

Argazki lehiaketa hiru mailatan banatu dute: lehen mailan 14 urte-tik beherakoek parte hartuko



Nagore Igartza iazko irabazleetako baten argazkia.

dute, bigarren mailan 15 eta 25 urte bitartekoek eta hirugarrenean, berriz, 26 urtetik gorakoek.

Lehenengo mailako guztiei sariak emango dizkiete. Bigarren eta hirugarren mailetan, berriz, 150 euroko saria jasoko du ira-

bazleak, eta 90 euro bigarrenak.


Azkenik, aipatu behar da aurkeztutako argazki guztiekin erakusketa antolatuko dutela Udaleko arduradunek Olanan etxean. Urriaren 26an eta 27an izango da hori, zapatuan eta domekan.



## Matxinatuen Korrikaldia Antzuolan

Domeka goizean heldu zen Matxinatuen Korrikaldia Antzuolara. Urretxuko korrikalarien eskutik hartu zuten lekukoa antzuolarrek, eta Bergararaino joan ziren korrika. *Guk, Euskal Herria. Inposiziorik ez! Independentzia! Intsumisia* zioen pankartaren atzean hainbat antzuolarrek parte hartu zuten Matxinatuen Korrikaldian. /A.I.

## ATREBENTZIAEZPADA/ Bergarako saihesbide berrixa ze pentsau jatzu?



**ANTONIO IGARTZA**  
70 urte

Kamiñua bera be gaur egunerako nahiko txapuzia da. Bonbuluko kruzia, berriz, oso arriskutsu dago; errotondia egin beharko leukie.




**TEOFILO BERNAL**  
60 urte

Bonbuluko kruzia oso gaizki dagola pentsatzen jat; errotondia hobe izango litzake. Saihesbidia bera ondo dago, asko aurreratzen da.



**PIEDAD ITURBE**  
43 urte

Bergaratik Antzuolara gatozenondako oso gaizki dago Bonbuluko errotondia; sustotxo bat be euki neban neuk. Bisibildade txikixa dago.



**PELLO ZABALETA**  
52 urte

Nahiko ondo dago, neuk uste nebana baino hobeto. Bonbuluko kruzia ez dago oso ondo, baiña bueno... Mondraguera juteko asko aurreratzen da.



**NEREA RUIZ**  
32 urte

Bazeguan horrelako zerbaittetarako biharra. Gutxi ibiltzen naiz kotxian, baina entzun dotenez Bonbuluko kruzia ez dago oso ondo.

## KIROLA

### PARTIDUAK



**FUTBOLA**  
Urriak 19  
16:30: Antzuola-Bergara B (Gazteak)

**PILOTA**  
Urriak 19 (Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketa)  
18:00: Olalde-Añorga (Eskuz nag.)

### EMAITZAK

**FUTBOLA**  
Antzuola 10 Arrate 1 (2. erreg.)  
Gazteak 0 Antzuola 2 (Gazteak)

**PILOTA**  
Gipuzkoako Kluben Arteko Txap.  
Girizia-Olalde (eskuz nag.) . . . . 10-22  
Olalde-Real Soc. (paletaz nag.) . 35-22



Bidea eginez

Tailerra: Uzarraga bidea, 10. Antzuola. Tf. 943 78 71 78  
Erakusketa: Kalebarren, 1. Antzuola. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73

- Gasa
- Berogailuak
- Haire egokitua
- Enpresen mantenimendua
- Lurrin instalazioak
- Bero-aurreztea
- Bainugelak. Proiektuak momentuan DIBaren bidez
- Birgaitze-espeditentek bideratzen ditugu

## LEKY-BERRI MERENDEROA

Janariak  
eta  
edariak

Tf. 943 76 60 94  
ANTZUOLA

## MUJIKA HARATEGIA



**Berezitasunak:**  
Etxean hazitako zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.  
ANTZUOLA  
Tf. 943 76 64 34

# Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2002ko urriaren 18a / 114. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Oxel Erostarbe • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

## Babes ofizialeko etxebizitzak atzeratuta

OXEL EROSTARBE

Zaila izango da babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lanak aurten hastea. Udalak lehenbailehen berba egin nahi du Torrealdeko lurak erosi dituen kontratistako arduradunekin. Batzar horren ondoren, babes ofizialeko etxebizitzak zerrendan daudenekin batuko da.

Dagoeneko Torrealdeko lur gehienak Oñatiko kontratista batek erosi dituen arren, ez da izan harreman zuzenik Udalaren eta kontratista horren artean. Irail edo urri aldera lanekin hasteko zegoen asmoa, hortaz, ez da beteko. Udalaren asmoa da datorren astean bertan batzea Torrealdean etxebizitzak eraikiko dituen kontratistarekin. Batzarra egin ondoren jakingo dugu babes ofizialeko etxebizitzak zein arruntak eraikitzen hasteko data.

Babes ofizialeko etxebizitzak nork eraikiko dituen ere ez dago erabakita. Udalak Torrealdeko lurak erosi dituen kontratistaren asmoak jakin nahi ditu: babes ofizialeko etxebizitzak eraikitze-ko gertu dagoen, etxebizitza arruntak eraikitzen hasteko asmoa daukan, noiz hasiko litzaitekeen eraikitzen, zenbat eraikiko lituzkeen...

Kontratistarekin batzarra egin eta gero, eraikiko diren babes ofizialeko 20 etxebizitzetarako izena eman duten 77 lagunekin batzarra egingo dute Udaleko teknikariek. Dagoeneko zerrendan



Dagoeneko Torrealdeko lur gehienak erosi ditu Oñatiko kontratista batek.

dauden artean aukeraketa zelan egin ere aztertzen dihardu Udalak. Beste zenbait udalek erabili dituzten oinarriak esku artean dituzte, Elgetan erabiliko dituzten oinarriak erabakitzeko.

**TORREALDEKO URBANIZAZIO PROIEKTUA**  
Azaro bukaerarako Torrealdeko urbanizazio proiektua eskuetan izatea espero du Udalak. Dagoe-

neko horretan dihardute Udaleko teknikariek. Proiektu horiek aurrera eramateko ikerketa geoteknikoa behar izaten da. Torrealdean ikerketa hori egiteak 4.740 euroko aurrekontua izango du. Diputazioak dagoeneko onartu du Torrealdeko PERI, eta hil honen amaieran egingo den Udal Batzarra berretsi egingo du Diputazioak onartutakoa.



## Kantu bat grabatu dau Ostiada Oi!-k

Aurreko hillian Burgosen kontzertua emon eta gero, Bergarako gaztetxiak abenduan kaleratuko daben diskorako kantu bat grabatzen jardun dabe Ostiada Oi! taldekuak hemen astian. *Hirurogeita bederatzi* kantua aukeratu dabe elgetarreko diskorako. Urrixaren 26xan (zapatua), Añorgan emongo dau kontzertua Ostiada Oi! taldiak./O.E.

## LABUR

## Iñaki Salvadorren kontzertua antolatu du Kultura batzordeak datorren barrikurako

Urriaren 25ean, Iñaki Salvadorrek kontzertua emango du Espaloian. Gaueko hamarretan hasiko da emanaldia, eta doan izango da. Herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Kultura batzordeak kantari donostiarraren doinuak entzuterako. Jazzaren eta musika modernoaren eremuan euskal musikari ezagunenetakoa dugu Iñaki Salvador. Azken urteotan, emanaldiak emateaz gain, antzerki eta film laburretarako konposizio eta konponketak egiten jardun du. Kontserbatorio ezagunenetan eskolak ematen ere jardun du.

**JAR EZAZU  
HEMEN  
ZURE PUBLIZITATEA**

Goibekokale

**EROSLE**

M. Asun Agirre

Salbador 26  
ELGETA  
Tel: 768190



**RECYDE, S.A.**

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR

**ER**

Enpresa  
Irregistratua

ER-0182/2/95

ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

JARDUNABALCOITTIK



Oxel Erostarbe

Kontraren kontra

**E**z nagola kontra! Gaztetxeko partaide izan nintzan, naiz eta besterik erabaki artian izango naiz. Eta izateko ez dago batzarrera juan biharrik. Lehenau zenbete-tan juaten nintzan ba!

Kontra nagola siñistiak, dana ondo doiala esateko balio badotsue jarraitu horretan. Ingurura zelan zabaldu aztertu biharrian, jarraitu danok kontra garela pentsatzen. Jarraitu norberan zilborrera begira.

Hankia sartuaz ikasten da gauzak ondo egiten. Guk halan ikasi giñuan. Baiña behin ikasitta, zeuek be ikasi ziñuten, zergaittik egin oker bardiñak? Ibilli danak, badaiki okerrak nundaren eta ez dittu aireratzten. Etxeko trapuak etxian garbitzia da egokixena eta halan jokatu dot beti. Publikoki noiz emon dot ba gaizki egindakuen barri?

Pankarta danak siñatu egin bihar dirala pentsatzen dot, hori esatia ez da inor manipulatzia. Hori eritzixa emotia da, Balkoiko Jardu-neko txokuan aurrerantzian be egingo dotena.

Bukatzeo, periodismua ikastera Leioara! Han ikasten ei da. Neri behintzat ez eskolarik emon, hemen zutabian hitz, esaldi eta eritzixekin egindako saldiai zenbat gatz bota neuk erabakiko dot eta.

KIROLA

# Kluben Arteko Txapelketako 3. jardunaldia jokatuko dute bihar Ozkarbiko pilotariek

O.E.

Ozkarbiko pilotariek hasi dute Kluben Arteko Txapelketa. Azken urteetan bezala, senior mailako bikotea gorengo taldean izatea da asmoa. Kadeteetan eta infantiletan ere izango dute taldea. Zapatu-arratsaldean, Aretxabaletako taldea izango dute aurkari.

Senior mailan Ozkarbi eta Aretxabaletako taldeek dituzten bikoteek partidua jokatu dute zapatuan, 16:30ean, frontoian. Senior mailako bikotea Kluben Arteko Txapelketan gorengo mailan izatea da aurten ere Ozkarbikoendako helburu nagusia. Senior mailan Ozkarbik duen bikoteak Eibarko eta Billabonako taldeen aurka neurtu ditu indarrak dago-



Garatek eta Atxotegik ezin izan zuten aurreko partidua irabazi.

eneko. Hala, Eibartarren aurka 22-7 galdu zuen eta Billabonako Bearzana taldearen aurka, berriz, 22-17 irabazi.

Senior mailan, banaka, Altzarrak eta Lazkaoko taldeen aurka jokatu du Ozkarbik, eta bi partidua irabazi ditu. Kadete mailan, aldiz, aurreko astean jokatu zuten lehen partidua. Bertan, Etor Garate eta Atxotegi soraluzetarrek 22-10 galdu zuten Ordi-ziako pilotarien aurka.

HEZETASUNAREKIN AMAITU NAHIAN

Frontisean sortzen den hezetasunarekin amaitzeko, mintz iragzagaitza emango dute frontoia- ren kanpoaldetik. Frontisean bakarrik emango dute mintza, eta 1.046 euroko aurrekontua izan- go du lan hori egiteak. Ea arazoa konpontzeko balio duen.

ZERBITZUAK

## Eguneko Zentrorako laguntzen esperoan

O.E.

Datorren astean jakingo dute Udaleko Ongizate Zerbitzuek Eguneko Zentroa zabaltzeko Diputazioak zenbateko dirulaguntza emango duen. Laguntza hori zenbatekoa den zain daude, Udalak zenbat diru ipini behar- ko duen erabaki eta lanak egiten hasteko. Eguneko Zentroa Domingo Iturbe kalean kokatuko da, dagoeneko proiektua eginda dago, eta lanekin ahal den bizkorren hastea da asmoa. Eguneko Zent- roan zerbitzu bi emango dira: batetik, Eguneko Zentroan eman- go diren zerbitzuak: bertan ego- teko aukera eta jatorduak bertan egiteko aukera; bestetik, etxebi- zitzita bezala erabiltzeko aukera.

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA, ABIAN

Eguneroko gauzak egiteko gai ez direnei zuzendutako etxez- etxe-

ko zerbitzua abian dago. Bi era- tako laguntzak ematen dituzte: laguntza pertsonala eta etxerako laguntza. Laguntza pertsonala- ren barruan norberarendako laguntzak sartzen dira: ohetik jaikitzeo, janzteko, jateko... Etxe- rako laguntza, berriz, etxeko man- tenea eramateko izaten da: etxe- ko lanak egiteko, garbitasuna egiteko eta arropak garbitzeko laguntza.

Laguntza emateko orduan, pertsona batek bata edo bestea egi- teko zailtasunak dituen hartzen da kontuan. Egunean gehienez hiru orduko zerbitzua izaten da eskaintzen dena, eta beharren arabera egiten da ordu eta egun banaketa.

Elgetan dagoeneko sei lagu- nek eman dute izena etxez etxe- ko zerbitzuan. Zerbitzuaren beha- rra dutenek Udaleko Ongizate Zerbitzura jo behar dute.



## Eguarbitza ingurua ziharo garbittuta

Eguraldixa zala-eta, inoiz baiño jente gutxiago batu zan aurre- ko zapatuan Eguarbitza ingurua auzolanian garbitzera. Base- rritarren batzordiak egindako deixari erantzunez, hamar bat lagun juan ziran Eguarbitzara, desbrozadoria eta gai- ñontzeko erremintak hartuta. Goiz osuan lanian jardun eta gero, oti eta arantza barik laga zeben Atxe azpiko zelaixa. /O.E.

## SAIOA ARANZABAL MASAJEAK

ELGETAN, DOMINGO ITURBE 10ean

- Kiromasajea •
- Reflexologia •
- Hidromasajea •
- Kirol masajea •



- Solariuma •
- Drenaje linfatikoa •
- Algekin eginiko estalkia •

Dei ezazu 646 50 00 29 telefonora ordua eskatzeko



TAPEM S.A.

Trokelak eta estanzazioa  
TROKEL PROGRESIBOETAN  
ESPEZIALDUAK

Elorrio bide z/g 20690 Elgeta  
Tel: 943 76 80 50 / 78 90 31  
Faxa: 943 76 82 43

## BOLATOKI

Taberna

Eguneko menua

Asteburuan menu bereziak,  
ospakizunak eta agur-afariak

Karta enkarguz

Artakale 2, ELGETA. 943 76 82 84

## ERRETRATUZAHARRA

ELGETA

Asto eta guzti  
ezkontza  
despedidan

Asto eta guzti dare hemen erretratuan gizonezko gazte guztiak. Ikusten ez dan bat be badago, atzeko aldian, eskua ikusten jago bakarrik eta ezin izan dogu jakin zein dan. Erretratukoren batek jakingo dau zein falta leiken... baina asmakizun hau zuen konturako lagako dogu. Erretratu orduan denboretan hain ezaguna zan Landa-buruk etaratakua da, Elorrixoko argazkilarixak.

Eta nun etarata dagon esan biharrik be ez da egongo. Kataian dago etarata, Indalezio Oianguren horrenbeste bidar etara zeban leku berian. Zenbat kuadrillak euko ete dabe fondo hori euren erretratuan.

Goiko illaran: Felipe Maiztegi Artekale, Patxi Basauri, Luis Mari Irazabal, Jose Arantzabal *Etxebarri*, Migel Oianguren *Agarre*, Joakin Atxukarro, Pedro *Gelatxo* soinojolia.

Erdi inguruan darenak, astuaren eskumatara: Jesus Elgoro eta Iñaki Agirrezabal *Kotones*.

Behoko illaran: Jabier *Altzeta*,



Juan Markiegi, Luzio Sarasketa, ezezaguna, Jabier Elgoro, Jabier Larrañaga.

Gaur egun be izaten dira ezkontza despedidak. Astuakin barik, astakeriak egittia ei da arruntena.

Argazkia: Nati Arrieta.

## ADI IRAKURLE!

Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

## NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

ELGETA

Salbadorretik  
begira

O inguan be Elgeta ikusi geinke hemen txokuan; izan be, herriko txo-kuak agertzen diran erretratuak topatzia gero eta zaillagua egitten jaku. Gaurkuan ekarri dotsuegun erretratu Salbadorretik ataratakua da. Ikusi zeinkien moduan, kiroldegixa eta industrialdia eraiki barik zeren. Salbadorrera igotzeko bidian piñarixa zeguan, eta Uruburuko etxiak eraiki barri.



1979 Elgeta inguru dana piñuz beteta dagola ikusi geinke: salbadorrera bidian, kanposantu onduan eta presara bidian, adibidez.



2002 Gaur egunian, orduko antzera dago Elgeta. Etxebizitza gehixago darella ikusi geinke erretratuan. Kiroldegixa eta industrialdia be egin ditte.

**Z**umelaga  
JATETXEA

60 urte zuen zerbitzura!

San Antonio 5. BERGARA. 943 76 20 21



**Manufacturas LARRAÑAGA**  
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.



Otalora z/g, ARRASATE  
943 79 82 68



Irala 5, BERGARA  
943 76 27 16



Barrenkalea 35, BERGARA  
943 76 29 46

Bonaventure • Pepe Jeans • Diesel • Levi's • Dockers • Zone • Daneva • Sweater House • Positive • Solido • James Dean

# Ezerk ez dizu ihes egingo.

**GOITBko albistegiak arratsaldean:**

14:30, 15:30.

Aurkezlea: Gorka Etxabe.

**GOITBko albistegiak gauean:**

20:00, 21:00, 22:00, 23:00.

Aurkezlea: Mainer Osa.



**Ikusiko  
duzu!**

Orain Opel-en,  
BEZa ez da seriekoa.

- **16**<sup>KO</sup>  
**% BEZ**

Corsa Diesel /Astra Diesel



Orain OPEL kontzezionariotan nahi duzun Corsa Diesel edo Astra Diesela erosterakoan, BEZaren parekoa den deskontua duzu.

Oraintxe etorri zure OPEL kontzesionariora.

Opel. Ideia berriak. Auto hobeak.

Eskaintza hau 2002ko urriaren 31 arte luzatuko da stockean dauden Corsa diesel eta Astra diesel automobiljetan, Caravan, Coupé eta Cabrio modeloak izan ezik. Promozio honen deskontua, automobilaren prezioa gehi fabrikari erantsitako aukera librean prezioekin kalkulatu da (bi kasuetan zerga eta garratorik gabe). Informazio gehiago, zure OPEL kontzezionarioan.

**Giauto**

Olabarrena auzoa z/g. Tel. 943 76 33 44/46. BERGARA